



Elikadura burujabetza

Denon eskura egon dadin,
legea aldatu beharra

Irkus M. Zeberio komikilaria

Ekintzara pasa
den poeta baten
ibilerak kontatu
ditu bere lehen
lan luzean

Gurutze Ciga

«Amak nahi zuen
alabak maistrak
izatea, eta piano
bat etxean, ez
soilik zartaginak»

Mediku objektoreak

Gizarte
segurantzarik
gabekoak osasun
sistematik
baztertu ez
ditzaten borrokan

Jatri Aduh

Fronte Polisarioko
negoziaketen burua,
Mendebaldeko
Sahararen egoeraz

Ekialdeko aragoiera


Aragoiko
Gobernuak izena
asmatu du
katalana ez
onartzearren



argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko irailaren 9a, 2.335. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

ALEX SARDUI: «Rock and rolla eszena eta jarrera da: potroak eta obarioak». SUSTRAI COLINA / 4

ASTEKO GAIA

ELIKADURA BURUJABETZA Gure elikaduraren kontrola berreskuratzu. UXUA LARRETXE / 5

PERTSONAIA

GURUTZE CIGA: «Aitak erakutsi zigun nafarrak euskaldunak garela, begira zer nolako aurkikuntza, e?». REYES ILINTXETA / 12

GAIK

IVAN VERGARA, MEDIKU KONTZIENTZIA-OBJEKTORAK:

«Praktikan ez dugu nahikoa baliabiderik izango legeak baztertzen dituen artatzeko». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 17

IRITZIAREN LEIHOA

KOHERENTZIA POLITIKOA ETA SINESGARRITASUNA

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 22

LANIK EZ EGITEKO ESKUBIDEA IÑAKI ODRIÓZOLA / 24

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

BERTSO BERRIAK Kontxako estropadak.

MAIALEN VELARDE MUJICA / 23

HEMEROTEKA Keynes problema da, ez soluzioa.

HARRY SHUTT / 23

TXANDAN Deszentralizatzen. AMETS ARZALLUS / 24

ERDIKO KAIERA

IRKUS M. ZEBERIO, KOMIKILARIA: «Txikitatik ikasi eta ikasi, baina ekintza ere behar da». HEDOI ETXARTE / 25

LIBURUAK SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30

DISKOAK IKER BARANDIARAN / 31

EZPALAK GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 32

ABARRAK UNAI BREA / 33

IHESI BERIAIN MENDIAREN INGURUAK (NAFARROA)

Hamaika bide gailur ospetsura igotzeko. LUIS URZAINKI / 34

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 38

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 40

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 41

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 42

TERMOMETROA

JATRI ADUH, FRONTE POLISARIOA: «Sahararak presio handia egiten diote Polisarioari gerran hasteko». ANDONI LUBAKI / 43

KATALANA ARAGOIN Eguzkia ekialdetik sartzen da.

ÁLEX MILIAN (EL TEMPS) / 46

BERO-BEROAN JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ALEX SARDUI

Beti Gatibu eta beti libre.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Iñigo Azkona

“Rock and rolla eszena eta jarrera da: potroak eta obarioak”

Arrakastaren aparretan zabilta. Oker begiratu behar nizuke.

Karramarrotan ari direla, estatubatuarrak mexikarrari: “Txo, taparik barik, ospa egingo dizute!”. Mexikarrak: “Bai zera, gurean behean daudenak berehala jaisten dute gorantz doana!”. Euskal Herrian, gauza bera.

Euskal Herriaz ari garela, hemen lehengoa beti da hobe.

Nostalgia. Jendeak sasoi onak gogoratzen ditu. Hori bai, “guk hau eta hura egiten genuen” esaten hastean belaunaldi berriei txanda uzteko garaia da.

Hemen lehengoa beti da hobe, eta kanpoko ere bai!

Bruce Springsteeni jakina ordaindu behar zaiola, baina jakin dezatela muntaia hori nik ere egingo nukeela nigatik ordainduko balute! Zergatik iruditzen zaigu garrantzitsuagoa Mick Jaggerrek Euskal Herriaz inpresio ona eramatea euskal musika zaintzea baino?

Aizu, su artifizialak ikusteko ez dago kanpoko-rik ekarri beharrik, e.

Rock and rolla eszena eta jarrera da: potroak eta obarioak. Txarto egiten duenak potroak badauzka ikasiko du, baina ez badauzka eta su artifizialak jartzen baditu oholtzari su emango dio!

Zergatik ez dituzue irudi batzuk jartzen eszena janzteko?

Gu dena ematen ari garen bitartean jendea



pantailari begira geratzeko? Horretarako pantaila jarri eta etxean geratzen naiz. Rock and rollan ez dago irudirik, rock and rolla rock and rolla da eta kito!

Telebistako aurkezle izatea ere ez da oso rock and roll, baina...

Ez daukat ezereen damurik. Asko ikasi nuen eta interesa pizten didan zerbait eskainiz gero berriz egingo nuke. Hori bai, arratsaldeetako tertulia programa frikietan ez nauzu sekula ikusiko, ez zaizkit piperrik gustatzen.

Edozer gauza, koruan elizaz eliza abesten hasi zinela jakin nuenetik...

Lehenbizi koadrilako neskak apuntatu ziren eta gero mutilak engainatu gintuzten. Tabernatxo bat zegoen, garagardoa merke, eta negua kalean baino epelago pasatzen zenez hiru urte egin nituen bertan.

Akabo rockero zaharraren mitoa.

Jendeak gure lanbidearen aurpegi ona soilik ikusten du: kontzertuak, diskoak, arreta mediatikoa, neskak... Behar txar eta esklaboa dela, familiak hausten dituela, oreka topatzea asko kostatzen dela ez da ikusten, eta ikusten ez dena ahaztu egiten da.

Rockero zaharra nioenean, adinaz ere ari nintzen.

Hirugarren entzule belaunaldiari ari natzaio kantari. Ez dakizu zer garrantzitsu eta zer ederra den niretzat 18 urteko neska edo mutil bati zer esana edukitzea. ■



Gure elikaduraren kontrola berreskuratuz

Nondik heldu da jaten duguna? Nork eta nola ekoizturik? Gero eta ugariagoak dira bertako nekazaritzan oinarrituta elikadura osasuntsua bermatzeko abiarazitako ekimenak. Horietako biren esperientzia jaso dugu eta elkarriketa mamitsua egin diogu Mixel Berhokoirigoin Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehendakariari.

| UXUA LARRETxea |

“MUNDUKO LABORARI GUZTIEK badute esku-bidea beren herriaren elikadura ekoizteko bertako baldintzetan –lekuko laborantza moldearekin, ohiturekin eta aukerak aprobe-txatuz– eta bertako proiektu politikoaren barruan. Beraz, guk ere Euskal Herrian gure herriaren elikadura hornitzeko eskubidea dugu”. Mixel Berhokoirigoin-en hitzak dira horiek, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehendakariarenak. Hain justu, eskubide horrek akuilatuta eta aldarrikapena praktikara eramanez, hainbat dinamika eta proiektu jarri dira martxan azkenaldian.

BasHerri: lekuko ekoizle eta kontsumitzaileak

EHNEk eta Biolur nekazaritza ekologikora-ko elkarteak elkarlanean abiarazi zuten Gipuzkoan BasHerri mugimendua. Xede argia du, elikaduraren kontrola berreskuratzea, hots, zer jan nahi dugun erabakitzea, elikagai horiek nork, non, nola eta zein baldintzetan ekoiztuak diren jakinda. Horretarako, agroekologiaren bidea sostengatzen dute. “BasHerri mugimendutik bilatzen dugun nekazaritza eredua gizartearen beharrei erantzuten diona eta natura errespetatzen duena da, hau da, lurrari eta herriari loturiko nekazaritza iraunkorra”, azaldu du Pedro Alberdi mugimenduko koordinatzaile eta EHNE sindikatuko kideak.

Lekuko ekoizleak –baserritarrak– ardura-tzen dira produktu ekologikoak ekoizteaz, eta kontsumitzaileak tokiko herritarrak dira. Zuzeneko salmentaren bidez funtzionatzen dute kontsumo talde hauek eta herritarren eta baserritarren beharrak asetzen dituen elkartrukean gauzatzen da: Baserritarrak astero ekoiztutako garaian garaiko produk-



DANI BLANCO

Pedro Alberdi BasHerri mugimenduko koordinatzailea (ezkerrean) eta ekimenean parte hartzen duen Harkaitz Portularrume baserritarra, Usurbilgo baratzeetan.

ELIKADURA BURUJABETZA

tuez (barazkiak, fruta, ogia, arrautzak, esnea, oilaskoa, mermelada, sagardoa...) osaturiko otarra prestatzen du eta toki eta ordu zehatz batean taldeko kideei, herritarrei, eramaten die. Familia bakoitzak bere beharren arabera zehazten du kontsumoa (otarre osoa edo erdia), eta hala, hileroko kuota finkatzen dute. “Baserritarren eta herritarren artean botere harremana nagusitu beharrean, ‘nik ordaintzen dizut eta nik exijitzen dizut’, batera doaz eta harreman zuzena dute”, azpimarratu du Alberdik.

Hurbileko hartu-eman hori lantzeko erabiltzen diren bideak anitzak dira: hala nola, baserrietara bisitak, hileroko batzarra (baratzearen egoeraz hitz egiteko, ekoizpenean sortutako gorabeheretz, errezetetz, kide edo produktu berriez...), auzolanak, BasHerri topaketak, ikastaroak eta jardunaldiak. “Hiru hiletik behin taldekideak nire baratzera etortzen dira eta jaten dutena bertatik bertara nondik datozen ikusteaz gain, zerbait ereiten dute”, azaldu digu Harkaitz Portularrumek, mugimenduan parte hartzen duen Usurbilgo baserritarrak. Duela bi urte emazteak animaturik eta lagun batek lur-saila zuela baliaturik ekin zion baratzeari lan egiteari. Lur-sail handia du Usurbilgo Aginaga auzoan, eta bertan garaiko hainbat eta hainbat produktu aurki daitezke. Egun, bi talde dauzka Donostian eta horietan 50 familiaren beharrak asetzen ditu.

Gertutasuna, konfiantza eta konpromisoa

Kontsumo taldea ez da soilik merkaturatze eredu bat, filosofia oso bat du atzean. Alberdiren iritziz, “baserritarren eta herritarren arteko harreman zuzenari esker gertutasuna sortzen da, konfiantza eta konpromisoa, eta lotura hori kanpotik etortzen ahal den edozein kontrol baino eraginkorragoa da”. Hori da hain justu Portularrumek gehien baloratzen duena. Horren adierazle ia azko azaroan—uholdeak eta ondorengo izotzaldiak tarteko— baratzeko produktu guztiak galdu zituela gogoan du, eta herritarrei horren berri ematerakoan ez ziotela inongo arazorik jarri eta kuota berdinean ordaindu ziotela dio, “jakitun zirelako egoera horren aurrean ezin zela ezer egin”.

Gipuzkoan lehen kontsumo taldea, Uztaro, duela zazpi bat urte sortu zen Beizaman, kooperatiba egiturari oinarrituz. Ondotik Arrasateko kontsumo taldea etorri zen orain hirurte, eta harrezkeroztik ugari egin da salmenta zuzeneko sistema. “Gure lurretan ez ditugun produktuak ere ekartzen ditugu,

“Kontsumo taldeen bidez aldarrikatu nahi dugu elikadura osasuntsuak eta bertako nekazaritzak ez dutela zertan luxu izan behar eta kalitate oneko elikagaiak jatea herritar orok dugun eskubidea dela”

Pedro Alberdi, BasHerri

baina kasu horietan ere salmenta zuzenaren filosofia izan dezaten bilatzen dugu”, azaldu du EHNEko kideak.

Gainera, egonkortasuna bermatzeko eta gazte jendea sektorerara erakartzeko aukera ona dela azpimarratu du Alberdik. “Betidanik gustatu izan zait bertako elikagaiak erosi eta kontsumitzea, kalitate oneko produktuak bermatzen dituelako, eta gainera, sistema honek baserrien etorkizuna ziurtatzen lagun dezake”, baieztatu du Karmele Alvarezek, Donostiako Amara auzoko kontsumo taldeko kideak. Taldean parte hartu nahi duenak EHNErekin harremanetan jartzea baino ez du.

“Kontsumo taldeen bidez aldarrikatu nahi dugu elikadura osasuntsuak eta bertako nekazaritzak ez dutela zertan luxu izan behar eta kalitate oneko elikagaiak jatea herritar orok dugun eskubidea dela”, dio Alberdik. Beste alorretan ere eragiten jarraitu behar dela gaineratu du; hala nola, azokak sustatuz edota jangeletan bertako produktuak eskainiz. Azken horren adibide dugu Larrabetzuko jangelan martxan jarritako esperientzia (ikus ARGIAren 2225. zenbakia).

“Kontsumo taldeen bidez aldarrikatu nahi dugu elikadura osasuntsuak eta bertako nekazaritzak ez dutela zertan luxu izan behar eta kalitate oneko elikagaiak jatea herritar orok dugun eskubidea dela”, dio Alberdik. Beste alorretan ere eragiten jarraitu behar dela gaineratu du; hala nola, azokak sustatuz edota jangeletan bertako produktuak eskainiz. Azken horren adibide dugu Larrabetzuko jangelan martxan jarritako esperientzia (ikus ARGIAren 2225. zenbakia).

Baserri Barri, Aramaiotik aramaiorarentzat

Arabian, duela bost urtetik hona mamitzen ari da Aramaioko Baserri Barri (ABB) proiektua. Bertako produktuak sustatzeko eta herritarren beharrak herritik bertatik asetzeko abiarazi zuten landa garapenerako ekimena. Mugimenduaren hastapena sagarrak ekarri zuen. Alferrik galtzen utzi beharrean horri probetxua atera nahian hainbat baserritar Aramaioko Sagarzaleen Elkartearen (ASE) batu ziren eta produktuaren kalitatea hobetzeko eta kopurua handitzeko beharrezko makineria erosi eta zukua eta sagardoa egiteari ekin zioten. Sagarzaleek abiarazitako ekimenarekin bat egin zuten beste baserritar batzuek—tartean nekazariak, esne ekoizleak eta abeltzainak—. Egun, ekimenean zuzenean 50 bat lagunek hartzen dute parte (1.500 biztanle inguru ditu Aramaiok), baina zeharka herriko ia eragile guztiak daude inplikaturik, baita Udala bera ere.

Xede nagusiak hizpide, Aitor Larrañaga Baserri Barri proiektuko dinamizatzaileak elikadura burujabetzaren gaia jarri du mahai gainean. “Aramaiorren elikadura burujabetza poliki-poliki berreskuratu nahi dugu”. Hala, ia baserri guztietan dagoen etxerako ekoizpena baliatu, gehiena naturala (barazki freskoak eta eraldatuak, fruta, esnea, gazta,

Japoniatik Euskal Herrira

Kontsumo taldeen sistema ez da gaur egun sortua, 1980ko hamarkadan

Japonian jarri zuten martxan teikei dinamikaren harira. Japoniara lehenago iritsi zen industrializazioa eta erresistentzia mugimendu gisa eratu zen. Hortik AEBetara egin zuen jauzi mugimenduak, CSA egiturapean (Community Supported Agriculture), eta ondoren European finkatu zen.

Baserritarrentzat kontsumo taldeak aukera bideragarria direla eta Euskal Herriko baserriaren etorkizuna hor dagoela diote erreportajeko protagonistek.



AITOR LARRANAGAK UTZIAK

Ezkerreko irudian, Aramaioko Baserri Barri taldeko hainbat kide. Eskuinean, Harkaitz Portularrume. Iazko azaroan, uholdeek baratzeako produktuak kaltetu zizkieten, baina BasHerri ekimeneko kontsumitzaileek ez zioten bizkarra eman.



DANI BLANCO

ogia, ezta...), eta etxerako janaria etxean bertan ekoizteko ohiturari eustea erabaki dute. Aurrera begira, ekoizpena emendatu nahi dute, janaria ekoizteko baliabiderik ez duten aramaioarrek ere herriko jakiak eskura izan ditzaten. Baserritarrek euren lanerako beharrezko dituzten azpiegiturak Udalak errazten dizkie. Elikadura burujabetza bermatzea ez ezik, energia burujabetza lantzea eta Aramaioko ondarea berreskuratzea ere badira finkatu dituzten xedeak.

Industrializazioaren aurrean, baserriko kultura bizirik mantentzea lortu dute Arabako herrian, jakitun direlako landa eremuak asko duela eskaintzeko. "Aramaioarrok bizi dugun egoera sozioekonomikotik abiatuta sortutako proiektua da. Adibide moduan balio dezake beste herrietarako, baina bakoitzak bere egoe-rara egokituriko ekimena garatu beharko luke", adierazi digu Larrañagak. Beraiek, hain justu, adibide izan dituzte inguruko herrietako esperientziak, Zeraingoa, Ezkio-Itsasokoa, Beizamakoa eta Lasturrekoa, kasu.

Baserri Barrik harrera ezin hobea izan du herrian, baita kanpoan ere. Horren erakusle

"Aramaion ditugun baliabideen ustiapen egokia eginez gero, gure beharrak asetzeaz gain lanpostu lokalak sor ditzakegu eta bertako ekonomia indartu"

Aitor Larrañaga, Baserri Barri

dira inguruko herrietatik jaso dituzten bisi-tak, "eta horrek herritarrei autoestimua eta lanerako gogoia pizten die", aitortu du dinamizatzailek. "Gaur egun gailentzen den

merkatu libreak bertan sor ditzakegun produktuak kanpotik ekartzera eraman gaitu eta horrek zuzenean gure ekonomian ezkorki eragiten du. Aramaion ditugun baliabideen ustiapen egokia eginez gero, gure beharrak asetzeaz gain lanpostu lokalak sor ditzakegu eta bertako ekonomia indartu". Larrañagak, gainera, uste du krisi

garaiak onak direla honetaz guztiaz jabetzeko eta ideia berriak landuz egiazko alternatibak sortzeko. Azken finean, alternatiba hauek guztiek gogorarazten digute geure burua zaintzeko eta gure etorkizuna bermatzeko lehen-lehenik nahitaezkoa dela lurrak, abereak eta elikagaiak zaintzea.



Xolomozko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

MIXEL BERTHOKOIRIGOIN

EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAKO PRESIDENTEA

«Elikadura burujabetza ez da bakarrik salmenta zuzena»

Mixel Berhokoirigoin (Gamarte, Nafarroa Beherea, 1952) ELB sindikatuaren sortzaileetako bat eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) presidentea da. *Confédération Paysann*-eko idazkari nagusia izan zen, baita *Vía Campesina*-ko partaide ere. Elikadura burujabetzaz galdetu diogu.

Elikadura burujabetzak zein aldagai hartzen ditu kontuan?

Elikadura burujabetza alternatiba izan dadin ikuspegi eta kontzeptu orokorretatik partitu behar da. Lekuko elikadura burujabetza lehen-lehenik laborantza politikari loturik dago eta gaur egun politika gehienak –batez ere herrialde aurreratuenetan– Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak finkaturiko merkatu librearen kontzeptuan oinarrituta daude: merkataritzari oztoporik ez jarri, produktuak liberalizatu eta munduan zehar ekoizpena lokalizatu gutxien kostatzen duen lekuetan, kontuan hartu gabe tokian tokiko arazo eta baldintza sozialak. Hori da liberalizazioa eta egungo Europako laborantza politika koadro horretan kokatzen da osoki. Duela 50 urte Europako laborantza politika bere eremuko biztanleak elikatzea bideratua zegoen, baina hori lortu zelarik (duela 20 urte) norabidea aldatu eta Europak nazioarteko merkatuetan jokatu behar zuela pentsatu zen, eta hortaz, liberalizazio prozesua eman zen. Munduko merkatuen arabera ekoizpenak eta laborantzak antolatzeak erran nahi du kantitate industrialak egiten diren ekoizpenetan behar dela sartu, eta horrek munduko herrialde bakoitzaren espezializazioa eta elikadura mota guztien uniformizazioa dakar, laborantzaaren industrializazioa. Kontrara, elikadura burujabetzak zonalde bakoitzean aniztasuna lortu behar dela erran nahi du, lekuko biztanleek behar duten elikadura. Ekoizleak eta kontsumitzaileak hurbiltzen ditu eta ardura inplikatzeko ekoizteko ereduaren eta kalitatearen inguruan.

Bi modutan planteatu daiteke elikadura burujabetza: estatu batek arau batzuk ezartzea, edo modu autogestionatu eta autonomo batean herriko edo auzoko lantzea. Zein ereduaren aldekoa zara?

Biak behar ditugu. Bada lege batzuk erabakitzen dituen koadro politikoa eta ezin da inor hark inposatzen dituen baldintzetatik atera. Egia da alternatiba eraikitzea posible dela –baldintza batzuekin zenbait lekutan–, baina ene ustez beti gauza minoritarioa izango da. Elikadura burujabetza denentzat balio duen alternatiba orokorra izan dadin koadro politikoa aldatu behar dugu lehenik. Eta lehen egitekoa da onartzea herrialde bakoitzak lekuko produktuen bidez tokiko jendea elikatzeko eskubidea duela –behartu gabe–, eta hori lehentasuna dela kanpotik etortzen diren produktuekiko. Beraz, horrek erran nahi du koadro politiko horrek kanpotik etortzen diren produktuetatik zaintzeko eta konkurrentziak mugatzeko aukera eman behar duela. Elikadura burujabetza lehen baldintza politikoa da eta eskubide horrek kontzeptu gisa onartua izan behar du nazioartean. Nolanahi ere, beste baldintza batzuk ere badira; hala nola, baldintza teknikoak: logistika, ikerketa, garapena, esperimentazioa, sistemaren egokitzapena... Horrek erran nahi du globalki hartuta elikadura burujabetza aniztasunean oinarritzen dela, laborantza egokituak galdegiten duelako, lekuko arrazak, barietateak, landareak aintzat hartuko dituenak. Horren beharra belaunaldiz belaunaldiko esperientziak erakutsi du, nahiz eta liberalizazioaren eta munduko merkatuaren eta espezializazioaren izenean hori hautsi nahi izan den. Eta ekoizteko ereduari dagokionez, lekuko agroekologia-baldintzetara moldatu

“Iparraldean laborantza eremuan duguna zaindu behar dugu eta Hegoaldean, laborantza berpiztu eta luraren eta laborarien inguruan kapitala egin behar da”

behar da eta hori laborantza iraunkorrean behar da kokatu.

Merkataritza liberalak bere oinarri eta baldintzak dituen moduan, elikadura burujabetzan oinarritzen denak ere bereak izan behar ditu: koadro politiko propioa, printzipioak, lehentasunak eta ekoizteko sistemak.

Elikadura burujabetzaren bidez gizarteak autonomia lortzen duela esango zenuke?

Elikadura burujabetzak gizartearentzat ahal den autonomia handiena lortzea dakar, baina kontuan izanda ez dela autonomia osoa posible eta beharba da ez dela bilatu behar ere.

Ez da horma baten barruan eta mundutik isolatua bizitzea ekonomikoki. Funtsean, guk hemen ditugun potentzialei lehentasuna ematea –eta laborantza hortara egokitzea– eta beste herrialdeekin produktu aldetik behar dugun trukaketa hautatzea dira autonomiaren oinarriak. Iparraldean, laburbilduz bi zona desberdintzen dira: mendi zona, hazkuntza-aren eta bereziki ardiaren inguruan bizi dena, eta zonalde txikiagoa nagusiki zerealak egiten dituen. Lehen zonaldean, kanpotik ekartzen dute ardi eta behientzat janaria, kasu batzuetan gainera urrutitik, Frantzia iparraldetik. Zereala dagoen zonaldera joaten bagara, zati bat bertan kontsumitzen dute eta bestea Baionako portura doa urrutira joateko. Beraz, kontraesan horrek begi-bistan uzten du Iparraldeko bi zonaldeen artean elkar trukaketak eta partaidetasunak behar direla. Hurbileko merkatu bat egin behar da –zentzu horretan ari gara arauak lantzen– eta horrek lurraldeari autonomia eta balio gehigarria emango dizkio. Gero eta liberalizatuagoa eta zabalagoa den mundu honetan, autonomiak esan nahi du segurtasuna eta bizitzeko aukera ukaitea.

Batzuetan, baina, bertako produktuak garestiagoak izaten dira kanpotik ekarritakoak baino. Oztopoa al da hori kontsumitzailea erakartzeko?

Egia da batzuetan tokiko produktuak kanpotik sartzen direnak baino karioagoak direla, adibidez Alemaniatik eta Argentinatik oso merke sartzen dira behiak. Gauza guztiek bere alde onak eta txarrak dituzte, baina orokorki eta luzerat behar da positiboa izan. Enetako biziki



“Elikadura burujabetza zinez gauzatzeko lurraldeko zirkuitu ekonomikoak egokitu behar dira”

garrantzitsua da salmenta zuzena egiterakoan ekoizpena ez dadila sobera garesti izan kontsumitzailearentzat, beti ere kalitatea bermatuz. Oreka atzeman behar dugu: gure lanarekin bizi behar dugu, baina ez da espekulazioan sartu behar. Egiten dugunak kontsumitzailearentzat eskuragarria izan behar du, ez da gutxiengo batentzat izan behar. Eta haiei ere azaldu behar zaie erosten duten gauza batean anitz alderdi badirela eta janaria biziaren oinarrietako bat dela. Zentzu horretan, azken hamarkadetan jendeak janarira bideratzen duen dirua gutxitzen joan da etengabe. Kontzientzia-zioa landu behar da, eta

laborantzara bideraturiko diru publikoa nola banatu ondo pentsatu behar da, horrek salneurrian eragina izango baitu.

Elikadura burujabetzaren ildora zein alor ari zarete lantzen?

AMAP kontsumo taldeetan oinarritzen den sistema duela hamar bat urte sortu zen, eta egun garatzen ari da Iparraldean; bere forman aldatzen joango da, oinarria bere horretan mantenduko duen arren. Instalatzen diren laborari berriei salmenta zuzenera bideratzen dute gutxienez euren ekoizpenaren zati bat. Salmenta zuzena osoki elikadura burujabetzaren erdian kokatzen da –lekuko kontsumitzaileak, ekoizleak eta ekoizpena–, baina elikadura burujabetza ez da bakarrik salmenta zuzena, ez baita alternatiba orokorra ene ustez. Gizarte eredu kontzentratu batean bizi gara Iparraldean, hirietan kontzentratzen da jendea, eta hortaz, salmenta zuzenean ezin da dena egin, ez da posible ez teknikoki, ez energetikoki. Elikadura burujabetza zinez gauzatzeko lurraldeko zirkuitu ekonomikoak egokitu behar dira. Gaur egun ez daude antolatuta bertako ekoizpenak bertako kontsumitzaileei eskaintzeko, eta horrenbestez, estrukturalazio hori ezinbestean aldatu eta ekonomia berlokalizatu behar dugu. Gu EHLGtik zentzu horretan ari gara lanean.

Sistema kapitalista zeuen kontra jar daiteke, duela bi urteko EHLG-ren afera dugu lekuko.

Botere ekonomikoak, gaurko antolakuntza kontrolatzen duenak, ez du utziko daukana eskuetatik ihes egiten. Sokatira izanen da,

ELIKADURA BURUJABETZA

baina bada botere ekonomikoak lortu ezin duen gauza bat: pertsonen indibidualki egin ahal duten hautua kontrolatzea. Ez dut uste industriak inoiz debekatuko duenik eskubide edo libertate hori, liberalismoak oinarri liberala baitu. Egia esan, konfiantza ematen dit kontrerasoak asmatzeko. Oraindik kontrolpean dute munduan gehiena; esaterako, transgenikoen atzean dauden multinazionalak (Monsanto kasu) ia mundu guztia kolonizatuta dute eta gosetearen arazoarekin negozioa egiten dute. Alabaina, alternatibak badaude, Via Campesina sarea adibidez. Okupazioaren azpian leku guztietan badira alternatibak eta horien arteko sareak eraiki behar dira.

Eta noizko Iparralde eta Hegoalde batuko dituen laborantza ganbara bat?

Une hauetan, adibidez, baditugu loturak elikadura burujabetzaren kontzeptuaren ildora Etxalde mugimenduaren barnean; hor ere arazo eta helburu berberak dira. Iparraldean ukan dugu aukera bat Hegoaldean ukan ez dena eta da laborantza ganbarak badirela. Frantziako Estatuaren egituraren laborantza ganbarek funtzio garrantzitsua dute, instituzio ofizialak dira eta euren eskumenak kudeatzeko eta diru publikoa jasotzeko gaitasuna dute. Hegoaldean aldiz, pisu handiagoa du indus-

triak. Badira sindikatuak, baina ez dakit botere publikoek zein puntutaraino kontuan hartzen dituzten. Gero badira egitura espezializatuak eta profesionalak, baina bertikalak dira, eta egitura ofizial gisa transbertsala izango den egitura bat falta da, ikuspegi orokorra izango duena. Hortaz, Iparraldean eta Hegoaldean helburu berberak ditugun arren, jorratu beharreko bideak ez dira berberak, errealitate ezberdinak ditugulako: Iparraldean laborantza eremuan duguna zaindu behar dugu eta Hegoaldean, laborantza berpiztu eta lurraren eta laborarien inguruan kapitala egin behar da. Egun batez, Iparraldeak eta Hegoaldeak behar dugu elkarrekin zerbait egin; ez dakit Euskal Herri osorako laborantza ganbara bat izango den, laborantza ganbaren arteko federakuntza bat edo koordinaketa bat. Horretarako, baina, lehenik Euskal Herriko burujabetza lortzea ezarri behar dugu helburutzat eta nik sentitzen dut posible dela! ■

Gure lurra, gure etorkizuna dokumentala ikusgai duzu webguneko Multimedia atalean. Euskal Herriko baserritarrek eta nazioartean elikadura burujabetzaren alde lanean ari diren nekazari eta ekintzaileekin egindako elkarrizketak biltzen ditu.



Kalean da irail-urriko



aizu!

- Uruguai eta Argentinan senideen xerka
- Kafea eta galletak musika entzunez
- Txirrindularien masa kritikoa
- Ikasteko adinik ez
- Jose Luis Zamalloa arin-arin
- Basoa ogibide

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

«Aitak erakutsi zigun nafarrak euskaldunak garela, begira zer nolako aurkikuntza, e?»

Javier Ciga margolari iruindarraren etxean izan gara Gurutze alabarekin solasean. Artea darie Zangoza kaleko pisu horretako hormei. Cigaren erretratuaren aurrean eta gerra garaian hainbeste abertzalaren bilgunea izandako egongela berean arteaz, bizitzaz eta baloreez aritu gara hitz eta pitz. Gaur Gurutze da elkarriketatu baina mahai borobil horrek ere hizketan baleki!

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zer moduz zaude, Gurutze?

Laboaren txoria naiz. Zaharreriak hegalkak moztu dizkit. Lehen autoa hartu eta Elizondora joan, handik Elbetara, gero Alkurruntz mendira... Hori da nire bizitza eta mendi horiek behar ditut ikusi. Zaharreriarako ez zaitu inork ere prestatzen. Zorionez margo-tzea, irakurtzea, musika entzutea... biziki maite ditut eta ibili ezinean nagoenean etxean gelditzen naiz horiez guztiez gozatzeko. Hau da nire babeslekua. Gainera maitatzeko gaitasuna dut nik. Dirutan ez baina adiskidetan aberatsa naiz. Ondare ikaragarria dut alde horretatik. Oso maitatua sentitzen naiz eta hori ez da gutxi bizitzan.

Hori gurasoengandik ikasia duzu?

Niri balore-eskala eman zidan aitak. Nati ahizpa nagusia elbarritua gelditu zen. Istripu batean bizkarrezurra hautsi zitzaion 20 urte inguru zituela. Beste ahizpa alzheimerak jota izan dut hemen urte askoan. Hainbeste maite duzun eta erantzuten ez dizun landare moduko pertsona batekin bizitzea oso gogorra da. Niri egokitu zait ama, aita, ahizpak eta anaia zaintzea. Bizitza ez da arrosa kolorekoa eta balore horiek txiki-txikitatik eman behar dizkizute. Gazteek gaur egun ez dute balore-eskalarik eta ezin dira zoriontsu izan. Batzuetan pentsatzen dute unean unekoa dela garrantzitsua, gustura egotea, whisky bat edatea... Parrandazale handia izan naiz ni, baina badakit, ordea, soilik horrekin ezin dela zoriontsu izan.

Balore-eskala argia baduzu, konprometitzen eta sakrifikatzen zara. Zerbait aukeratzeko duzunean ezin duzu utzi aspertzen zarelako. Nik zinez sinesten dut adiskide bat dela pertsona batek eduki dezakeen ondarrerik handiena. Aitaren gene asko daukat. Goxoa zen, inuzentea. Egiatzko bohemioa zen aita eta ez zen ohartzen ezta zer prezio zuten patatek ere. Hori oso polita zen. Izarretan bizi zen baina egun batean handik erori eta lurrean ikusi zuena ez zitzaion batere gustatu.

Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Munduko zoriontsuena. Aitatxi-amatxik Etxenikea ostatua zuten Elizondon. Txikitako garaia oso polita izan ziren. Gehiago bizi izan nintzen Elizondon aitatxi-amatxire-

NORTASUN AGIRIA

Gurutze Ciga Ariztia Iruñean jaio zen duela 88 urte. Bera da Javier Ciga margolariaren seme-alabetarik (Nati, Dolores, Gurutze eta Miguel) bizirik gelditzen den bakarra. 2007an Ciga Echandi fundazioa sortu zuen, beste bi kideekin batera, aitaren lanak kontserbatu eta ezagutzera emateko asmoz. Elizondo eta Iruñean hazia, Magisteritza ikasi zuen. Aitak eta familia osoak gerra eta haren ondorio beltzenak pairatu behar izan zituzten abertzale konprometituenak izateagatik. Hala ere ez du inoiz bizipoza galdu. Kulturazalea, margolaria, adiskideen adiskidea, pertsona argia, zuzena, dibertigarria eta Euskal Herriaren maitale sutsua. Kozkor handiko emakumea, ez bairik gabe.





kin Iruñean baino. Han hasi nintzen eskolan eta gero Korazonistekin. Ondoren batxilergoa Iruñean egin nuen. Elizondo maite dut, natura maite dudalako. Aitatzik bi txikienak hartu eta mendi guztietara eramaten gintuen. Hiru solairuko etxe handia zen hura, baratze ederrarekin, eta zaldiak ere bagenituen. Nire etxeok langile xumeak izan dira beti. Izen handikoak, ez diruagatik, idealistak izateagatik baizik. Ariztia etxea oso errespetatua izan da beti. Gerra ondoren ere kontuan hartu gaituzte, nahiz eta gu gorri separatistak, Elizak erretzen zituztenetakoak eta abar izan.

Parisko egonaldia benetan garrantzitsua izan zen zuen aitarentzat. Modernitatea eta kostunbrismoa uztartzen ikasi zuen han.

Kultura

“Jendea, oro har, oso ezjakina da. Horregatik beti esaten dut: ez kexatu agintariengatik, herriak aukeratu dituenak ditugu eta. Ni, bestalde, zorioneko sentitzen naiz oso lagun kulturzaleak ditudalako”.

Nicanor Urdanpilleta mezenas izan zuen Parisen. Familia baztandarra zuen eta izugarri gustatzen zitzaion ongi bizitzea. Behin Sanferminetan Cigaren kartel bat ikusi eta aunitz gustatu zitzaionez proposatu zion Parisera ikastera joatea. Han izan zen 1912tik 1914ra eta artista handienak ezagutu zituen. 1914an *Mercado de Elizondo* koadroarekin lortu zuen Parisko Saloi Handian, Europako nazioarteko erakusketa ospetsuenean sartzea. Baina Lehen Mundu Gerra iritsi eta han utzi behar izan zituen estudioa, pianoa, zilarrezko mahai tresnak... Hona itzuli eta 19 urteko Eulalia Ariztia elizondoar mokofinarekin ezkondu zen. Hasieratik amak nahi zuen alabak mais-trak izatea eta piano bat etxean izan, ez soilik zartaginak. Ez gintuen ezkontzeko prestatu. Goi mailakoa izan arren, emakume langilea zen, xumea. Hala ere, elite guztiarekin ibiltzea egokitu zitzaion gero.

Abertzaleak amaren familiatik eta berdin aita zena ere. Zuekin gai hauetaz hitz egiten zuten? Aitak erakutsi zigun nafarrak euskaldunak garelako, begira zer nolako aurkikuntza, e? Hitz egin baino gehiago ekin egiten zuen. EAJren hastapenetan parte hartu zuen hemen. Arturo Campion eta garai horretako euskaltzale handien oso laguna zen, ikaragarri gustatzen zitzaion Navarro Villosladaren obra, oso kultur zalea zen, irakurtzea maite zuen... Iruñeko Udalean zinegotzi izan zen 1920tik 1923ra eta 1930etik 1931ra. Barne oneko pertsona zen, inozo hutsa, eta horregatik 1938an atxilotu eta kartzelara bidali zuten. Esaten zuen Frantziara ez zuela ihes egin behar berak deus txarrik egin ez zuelako. Azkenean UGTko batzuek Elizondora eraman eta gero bertako okinaren bidez muga pasatzeko laguntza eman izana leporatuta atxilotu zuten. UGTkoak ez ziren, bat gutxienez fraidea baitzen.

Ama, aldiz, erabat kontrakoa zen. Matahari erabatekoa. Bere familian espioitza lanak egiten zituzten, agiriak gorde, jendeari Frantziara pasatzen lagundu... Amatzok bazekien zergatik egiten zuen guztia. Etxe hau aunitzen babeslekua izan da. Hemendik pasa dira Aizpea Goenaga, Joseba Elozegi, Koldo Mitxelena, Juan Ajuriagerra, Julia Fernandez, Nestor Zubeldia, Joxe Agerre... Amaren anaia eta ahizpa bat harrapatu eta Madrilen kondenatu zituzten erresistentziari laguntza emateagatik. Ez zituzten hil baina bai bost urtez hemengo kartzelan itxita eduki. 15 urte motzekin hiru ahizpak egunero bizikletaz joaten ginen janaria eramatera. Lotsagabe esaten ziguten gona-praka janzteagatik edota erretzeagatik. Behin marrubiak ardoarekin eraman genizkion osabari. Ateko soldaduak esan zuen ezin zela ezta alkohol tanta bat ere sartu, orduan hartu eta den-dena

Oinarriak

“Artea, familia eta Baskonia ziren Javier Cigaren zutabeak. Bere lagun bati bidalitako eskutitz batean hala esaten dio, hor jarraitzen duela Baskonia eta artearen alde lanean”.

edan nuen bere aurrean. “Tori, ongi lehortuak dituzu orain marrubiak”, esan nion. Atxilotu aurretik egun batean osaba bisitan agertu zen Elizondoko etxean. Anaia txikiak, Migeltxok, atea zabaldu zuen eta hura ikusitakoan segituan itxi zuen beldurraren beldurrez, berak bazekielako hori ez zuela ikusi behar. Zuk uste duzu hori dela ume bat hazteko modu egokia? Zure etxean bertan bekatuak nonahi ikusten? Beldurrez bizi izan gara.

Gerrarekin batera miseria iritsi zen.

36koa ikaragarria izan zen. Dena kendu ziguten. Seme-alabei irakatsi behar zaie zein gogorra den bizitza eta mana ez dela zerutik iristen. Hori gezurra dela. Zapateria kalean aitzak zeukan Nafarroako ehorztetxe bakarra, bere aitarengandik zetorkiona, eta hura kendu zioten. Dirua, negozioa, den-dena. Aita 1938an, 61 urte zituela, atxilotu, torturatu eta kartzelan eduki zuten ia urte eta erdiz. Bitartean ama bakarrik lau seme-alabekin eta deus gabe. Nola bizi daiteke horrela? Aurrera jarraitu genuen, hala ere, baita konpromisoarekin ere eta 16 urterekin ahizpak San Kristobal gotorlekura igotzen ziren, han zeuden presoek janaria eramatera eta arropa bila garbitzera ekartzeko. 38ko hiru iheslari hona etorri ziren babes bila eta lagundu genituen. Bizitza arriskuan jartzen genuen behin eta berriz, baina nire amak ideiak oso garbi zituen. Gaur egun terrorismoaren biktimak ageri dira askotan egunkarietan. Guk asko sufritu dugu, dena kendu ziguten zoritxarreko gerra hartan eta ez dut ez dirurik ez beste deus eskatzen. Idealak ziren gu mugiarazten gintuztenak eta gu koherenteak izan gara beti.

Gaur egun aitaren obra oso barreiatuta dago: 65 lan Elizondoko museo etnografikoan behin-behineko erakusketa batean, bederatzi Nafarroako Museoan ikusgai eta beste hogeitabat sotoan gordeta, asko eta asko etxe pribatuetan... Fundazioak zer aldarrikatzen du?

Liburua

Pello Fernandez Oyaregui arte irakaslea eta Ciga Fundazioko kideak Javier Ciga, pintor de esencias y verdades izeneko liburua kaleratu berri du. Nabarreriako margolariaren obraren azterketa sakona egiten du: nekazal giroko margolanak, Baztango paisaia eta jendea bereziki, erretratuak, hala nola European barna eta Parisen ezagututako molde berriek eragindakoak.

Museo propio bat, baina ez dago modurik. Aspalditik hitzarmena sinatu genuen Unibertsitate Publikoarekin. Haiek nahi zuten Nabarrerria kaleko Rozaleko Markesaren jauregian egoitza jarri eta agian hantxe museoazabaldtu. Oso egokia izanen zen, besteak beste, hango ganbaran aitzak koadroak gordetzen zituelako askotan. Rozalekoa izanen zen idealena baina hondoratzen utzi dute. Beste aukera bat agian izanen zen Lekarozko kolegioa, baina desastre bat egin dute. Nafarroako Gobernuak erosi, bota eta orain ez dakite ezta zertarako nahi duten ere.

Batzokian zeuden Cigaren koadroak nolatan daude orain Nafarroako Museoko sotoan?

División Azul EAJren egoitzan sartu zenean, falangistek hartu zuten tokia han billarrean jokatzeke. Hor zeuden lau margolanak ez zeuden ongi. Batzuetan, adibidez, billarreko bolekin jotzen zituzten. Horregatik etxean gorde genituen, inork ez zuelako besterik proposatu. Lau urtez ahal bezala ezkutuan izan ondoren, horiek eta beste 25 bat gehiago Nafarroako Museoari saldu genizkion han hobeki egonen zirelakoan. Horiek saldu genituen gerra ondoren baina gerora Ciga familiak beste 100 bat koadro oparitan eman dio Fundazioari eta inon ez da aipatzen familiaren eskuzabaltasuna edo antzekorik. Huarte familia, aldiz, goraipatua izan da haien arte bilduma emateagatik eta museo bat eraikitzen ari dira haien izenarekin eta guzti. Gure proiektuan erakunderen bat edo sartu beharko zen hau aurrera ateratzeko. Nafarroako ondarea da eta lan hauek ez dira sakabanatu behar.

Nola ikusten duzu euskara gaur egun?

Jendeak uste du oso ongi hitz egiten dudala euskaraz oso doinu polita dudalako, baina halakoxea da Baztango hizkera. Tolosakoa ere ederra da. Behin ere ez dut ikasi euskaraz eta horregatik ez dut ongi mintzatzen ahal, baina toki guztietan beti euskaraz hasten naiz eta

lagunekin euskaraz

interneten ere bai

mobiletik euskaraz

gure artean euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



OFF THE RECORD

Aizu, moñoño

Sarasateren musikarekin egin digu harrera andereak. Otamenarekin batera *Euzkadi* hitza eta ikurrina marraztuta daraman katilu batean paperezko ahozapi txiki batzuk ekarri dizkigu Gurutzek, zuri, gorri eta berdeak. Solasaldian zehar hamaika aldiz zuzendu zaio Dani argazkilariari: “Aizu moñoño, zenbat gauza ari zara egiten?; eta zu nongoa zara?; hartu liburua eta begiratu zeinen margolan ederrak ageri diren hor; ongi al nago? Polita ere agian! Argiagatik diot, *ilo que Natura no da Salamanca no presta!*”.

gatzelaniaz erantzuten didatenean esaten diet: “A, ahaztu zait, barkatu, euskaraz aritzeko ohitura izan da”. Nire abizena ezagutzen badute meritu handiagoa ematen diote, eta hamaika aldiz agertzen banaiz egunkarietan areago, jendea ergela delako. Jendeak horri ematen baitio garrantzia: nabarmentzeari eta abizen bat izateari. Muskitzeko neska bat izan da nire etxean lanean. Berari lotsa ematen zion euskaraz aritzeak. Orain, ni ikusita, bera ere hasi da. Hemen, adibidez, Iñaki Urdangarinen amaren lehengusina bat bizi da. Oso pertsona atsegina eta xaloa da eta berarekin beti euskaraz aritzen naiz solasean. Ederki badaki mintzatzen. Eta nik Muskitzekoari esaten diot: “Begira, Urdangarin sendikoa, errege familiakoaren gertukoa eta euskaraz”. Saiatzen naiz ikustarazten zenbat balio duen gure hizkuntzak. Dena den, arrazoi guztia dute horrela jokatzeko dutenek, oso gaizki pasatu dutelako. Euskaldunak lehen Iruñera etorri, bankura, adibidez, eta inork ez zien ulertzen erdaraz ez zirelako moldatzen. Zertarako nahi zuten euskara? Trabarako bai-zik ez. Gaur egun euskaraz hitz egiten dugun jendea gutxiengoan gaude. Klean gutxi hitz egiten da. Orain zertxobait gehiago ikastolak daudelako. Egun euskara bada desberdintzeko modu bat. Kultua den jendearen artean euskalduna izatea bada puntu bat gehiago izatea. Barcina batekin bazaude, ez... edo agian bai, nork daki! Hori zabaldu behar da. Emakumeen prakekin bezala egin behar da: lehen inork gutxik zeramatzen eta gaizki ikusia zegoen, baina orain aldiz, begira ezazu! Bizitzan aldatu beharra dago. Beste adibide bat: Donostian Bilduko alkate bat izatea, gustatu ala ez, aurrerapausoa da. Beti kontserbadoreak egon dira eta orain, onerako edo txarrerako, baina urrats bat eman dute. Ezin duzu beti pentsatu gure gurasoek bezala. Haiengandik balore asko hartuko ditugu, baina aukera berriak eskaintzen dizkigu bizitzak eta probestu behar dira. ■



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



IVAN VERGARA

MEDIKU KONTZIENTZIA-OBJEKTORIA

«Praktikan ez dugu nahikoa baliabiderik izango legeak baztertzen dituenak artatzeko»

Agiririk ez duten etorkinak osasun sistema publikotik at utzi ditu Espainiako Gobernuaren dekretuak. Kode deontologikoa eta kontzientzia-objekzioarako aukera eskutan, neurria ez dutela beteko sinatu dute hainbat medikuk, horien artean Ivan Vergarak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Enrique Baigorri

INOIZ KOTIZATU EZ DUTEN 26 urtetik gorakoak ere sistema publikotik kanpo utzi nahi zituen dekretuak, baina azkenean mantendu egingo ditu, baldin eta diru-sarrerarik ez dutela dioen ziurtagiria lortzen badute Gizarte Segurantzari. Eusko Jaurlaritzak adierazi du EAEn ez dela indarrean sartuko etorkinak baztertzen dituen dekretua, bai ordea Nafarroan. Familia eta Lehen Arreta Medikuntzako Nafarroako Elkartearen presidentea da Ivan Vergara. 350 kide dituen elkarteak berak bul-

tzatu du kanpaina foru erkidegoan eta dagokion Lehen Arretarako 45 mediku eta erizainek egin dute bat.

Zein prozesu jarraitu duzue dekretuaren aurka objektatzeko?

Estatuko Familia Medikuntzako Konfederazioak Interneten duen formularioa bete behar da eta datuak Konfederazioari iristen zaizkio zuzenean. Dagokion erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialera eta Osasun

[Sartagudako osasun zentroan du kontsulta Ivan Vergarak.](#)





Kontseilaritzara bideratzen dira gero datuok. Dekretuarekiko medikuak hartu duen jarrera idatzita geratzen da, legeak kanpoan uzten dituenak artatzen jarraituko dugula, baina praktikan ez dago nahikoa baliabiderik horretarako. Ezin diezu errezetarik luzatu, ez dutelako Gizarte Segurantzarik, eta botikak erosteko dirurik ez dute izango agian, ezin dituzu proba osagarriak egitera edo beste osasun zentro bateko kontsultara bidali... Paziente horien historia klinikorik ere ez daukagu, ospitale askotan ezabatu egin dituzte dagoeneko, eta gaur egun dena informatizatuta dagoenez... Horregatik, batez ere aldarrikapena da ekimen honen helburua, profesionalen egindako presioaren bidez dekretua aldaraztea. Arazoa ikusarazi nahi dugu, gizarteak kontzientzia har dezan, dekretuaren aurka indarrak bateratzeko.

Praktikan orduan, zer da egin dezakezuen?

Agiririk ez duen etorkina etorriko balitzait –ez nuke izango bere historia klinikorik,

“Ekonomikoki neurri jasangarria dela dio Gobernuak, baina ikerketek argi uzten dute bertako herritarrek baino gutxiago erabiltzen dituztela baliabideak etorkinek. Aldiz, ez prebenitzeak prozesu gaitza eta garestia ekar dezake”

Nafarroako Gobernuak laguntza programa abiatuko du agiririk gabeko etorkinen arretarako, baina “helburuarekin zerikusirik ez duten baldintzak eskatzen zaizkie; etorkin ilegala bada ez du diru-sarrerara deklaraturik izango, adibidez”.

datu-basean ez dagoelako—, artatu egingo nuke, baina ditudan baliabideekin. Alegia, kontsultan dudarekin moldatu beharko nintzateke. Osasun zentroan mugatuak dira baliabideak, nora joan daitekeen gomendatu ahalko nioke, zer egin dezakeen, baina askoz gehiagorik ez, bere patrikatik ordaindu beharko lituzkeelako hortik aurrerakoak.

Zein arrazoi daude plantorako?

Arrazoi etikoez gain, hainbat legeren aurkakoa da dekretua eta osasunaren aldetik, kanpoan geratu den taldeari bakarrik ez, guztioi eragiten digu erabakiak, gaixotasun kutsakor eta infekziosoen kasuan adibidez. Pazientearen jarraipena egiteari uzten bazaio, kontrolatu gabeko infekzio-guneak egon daitezke, txertorik ere ez dute jasoko eta eragina izan dezake gizarte osoan. Gaur bertan, tuberkulosiak jotako etorkin talde bat artatu dut, eta horietako batzuek ez dute agiririk. Legea martxan dela gertatzen bazait, zeinek ordainduko die tuberkulosiaren aurkako tratamendua? Eta ospitaleratzen badituzte zer egingo dute, tratamendurik gabe kalean utzi? HIESa duten etorkinak ditugu, zer egingo diegu, tratamendua kendu?

Ekonomikoki neurri jasangarria dela diote Gobernutik, baina ez da hala, etorkinen taldea gehienbat lanera etortzen den jende gazte osasuntsua delako eta ikerketa pila bat ditugu argi uzten dutenak bertako herritarrek baino gutxiago erabiltzen dituztela baliabideak.

Aldiz, gaixotasunak okerrera egin aurretik ez artatzeak eta ez prebenitzeak ekar dezake larrialditan edo ospitalean bukatzea, eta ondorioz gaitzagoa eta garestiagoa izatea prozesua, gaixotasuna kutsatzeaz eta zabaltzeaz gain. Jasangarria, hortaz, ez da inolaz ere.

Kode deontologikoak zein indar du legearen aurrean?

Ezin dira kontraesanean egon. Kode deontologikoa jokamolde etikoaren arau zerrenda da, eta herritarrek artatzeko ahalmena eta eskubidea ematen digu. Kodeak dio, adibidez, artatutako pazienteak ezin dela artatzeari utzi. Pazientearen ongizatea, justizia soziala, ekitatea, autonomia pertsonala... bermatzen ditu; medikuak gizartearekin duen kontratua da, gizarteak medikuari ematen dion konfiantzaren iturri, eta legeak dioena dioela, ezin dut premisa horien aurka egin. Gainera, kode deontologikoaren aurka joateaz gain, dekretua hainbat legerekin kontraesan dagoela esango nuke, giza eskubideen legeekin, esaterako, edo Espainiako Konstituzioko hainbat atalekin. Kode penalak berak jasotzen du sorospenerako betebeharra eta osasun arloko profesional orori eragiten digu. Laguntzeko betebeharra daukagu.

“Medikuak gizartearekin duen kontratua da kode deontologikoa, eta legeak dioena dioela, ezin dut premisa horien aurka egin”

Orduan, herritarrek laguntza jasotzeko duten eskubidearen aurka egiten du dekretuak.

Hala da, dekretuak salbuesten dituen kasuetan ezik (haurrak, larrialdiak eta haurdunaldiak) hainbati ukatu egiten dielako artatuak izateko duten eskubidea. Kurioski, profesional liberal autonomoek mutualitate pribatua zuten orain arte eta osasun zerbitzu publikoaz baliatzeko kuota bat ordaintzen zuten, baina arau honekin ez dute kuota ordaindu behar, zuzenean integratzen ditu osasun zerbitzuan. Esanguratsua da arauak batzuekin eta besteekin nola jokatzaren duen.

Agintariekin esan dizute legea hautsi nahi izanez gero, orduz kanpo eta baliabide propioekin egiteko.

Baina hori ohikoa da bestela ere, medikuntza bokaziozkoa da eta orduz kanpo geratu behar baduzu luzatu egin direlako kontsultak, horrela egiten duzu. Kontzientzia-objekzioarekin administrazioari esaten ari zara lege jakin batekin ez zaudela ados eta ez duzula zigortua izan nahi hori ez betetzeagatik. Eta hain juxtu, lanordutan eta enpresaren baliabideekin aritzeko da kontzientzia-objekzioa; lanorduetatik kanpo eta nire

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako MASTERRA 2012/2013

Euskal Herriko Unibertsitatea / Gasteizko Letren Fakultatea



Ikerketa masterra doktoretzarako aukerarekin, 3 ikerlerro hautatuz 5etik:

- Hizkuntzalaritza aplikatua
- Euskal literatura
- Euskal gramatika
- Euskararen (aurre)historia
- Euskalkiak

Eskolak urritik abendura arte eta otsailetik martxora arte; 60 kredituak urte betean edo bitan egin daitezke; urte betean eginez, goiz eta arratsalde (10:30-13:30 eta 16:00-19:00); bi urtean eginez, goizetan ala arratsaldeetan baizik ez.

Argibide akademikoak: Xabier Artiagoitia (945 013 150)

xabier.artiagoitia@ehu.es

Argibide administratiboak: Guille Ibeas (945 013 410)

guillermo.ibeas@ehu.es

Aurrematrikulazioa oraindik zabalik



UPV EHU

«Krisi garaian errazago dute osasun sistema desegitea»

Benetako aurrezterik ez badakar, zergatik uste duzu hartu duela halako erabakia Gobernuak?

Agintariei galdetu beharko litzaieke, baina nire ustez biztanle sektore jakinak jartzen ari dira jomugan, batzuetan etorkinak dira eta beste-tan funtzionarioak gara. Gainera, krisi garaiotan badirudi errazago dutela orain arte ezagutu dugun osasun sistema desegitea. Nafarroan etorkinei esan zaie artatuak izan nahi badute 700 euro inguru ordaindu behar dutela langile badi-ra eta 2.000 bat euro pentsionista izanez gero. Hori azkenean aseguru pribatua da! Osasun publiko uni-bertsala pribatizatze bideak ireki-

tzen dira. Iaz arte bilatzen zena osasun unibertsala zen, herritar iza-teagatik edozeinek artatua izateko duen eskubidea, eta orain berriz diskurtsoa da asegurduna baino ez artatzea; ez du zentzurik, osasu-na zerga orokorretatik ordaintzen delako, ez du Gizarte Segurantzak ordaintzen. Etorkin hauek zergak ordaintzen dituzte, eta zergak ordaindun gero, Estatuari ez badio-te ezer zor, osasun sistema publiko-ra jotzeko gainerakoen aukera ber-berak izan beharko lituzkete.

Etorkinen arreta pribatizatu badute, beste jende askorena pri-batizatu dezakete gero, eta osasuna pribatizatuz gero, hezkuntza eta

beste makina bat zerbitzu pribati-zatzera jo daiteke. Nire susmoak ditut sistema publikoaren pribatiza-zioa dagoela honen guztia-aren atzean. Eta eraginkortasunaren argudioa ez da balekoa, gure osa-sun sistema publikoa eraginkorra baita. Oinarritzko zerbitzuaz hitz egiten ere hasi dira dagoeneko: sis-temak oinarritzko zerbitzuak har-tzea bere gain, eta hortik aurrera-koak norberak ordaintzea. Horrela jarraitzen badugu, sistema paralelo-ak sortuko dira: bata oinarritzkoa, kasik benefizentziazkoa behar-tsuentzat, eta bestea ordaindu deza-keenarentzat, aberatsentzako osa-sun zerbitzu pribatuak.

baliabideekin norbait artatzeko, ez dut ezer objektatu beharrik.

Nafarroako Gobernuak laguntza programa abiatuko du agiririk gabeko etorkinen arretara-ko, baldin eta etorkinak 532 euro baino gutxia-go kobratzen badu hilean, urtebete baldin badarama Nafarroan erroldatuta eta aurrekari penalik ez baldin badauka.

Osasun publikoak zenbat eta jende gehiago artatzea ahalbidetzen duen edozein neurri baikorra da. Hala ere, helbu-ruarekin zerikusirik ez duten baldintzak eskatzen zaizkie: hain juxtu, arreta gehiago beharko du aurrekari penalak dituenak, ziurrenik baldintza okerragoetan bizi delako eta osasun arazo handiagoak izan ditzakeelako; diru-sarrerena ere zentzugabea da, etorkin ilegala bada ez duelako diru-sarrera deklaraturik izango; eta urtebetez erroldatuta izateko eskaera argudiatzeko diote bestela edozein erroldatuko dela Nafarroan, baina ez diot zentzu handirik ikusten, lehen aipatu moduan etorkinek oro har gutxi kontsumitzen dituztelako baliabi-deak.

Zein ondorio izan ditzake objekzioak?

Kontratutatu zaizkan enpresari eskaintzen diozun denbora eta enpresa horren baliabi-deak lege kanpo erabiliko dituzun momen-tutik, ondorioak egon daitezke. Espedienteak irekitzea eta halakoak.

Abortuaren aurka, kontzientzia-objekzioa zabalduta dago Nafarroako medikuen artean. Objekzio parekideak dira?

Egia da konplexua dela Nafarroan abortua-ren gaia, baina behintzat aukera dago pazien-tea artatzeko, nahiz eta beste erkidego batera joan behar duen eta horrek koste pertsonal eta ekonomikoa eragin, baita deserosotasuna eta estigma soziala ere. Kasu honetan, ordea, ezin duzu beste inora bidali, ezin zaio inon artatu...

“Autonomoek ez dute kuotarik oraindu beharko osasun sistema publikoan integratzeko. Esanguratsua da arauak batzuekin eta besteekin nola jokatzeko duen”

Abortua bakarrik ez, eutanasia, lagundutako heriotza, ama-zelulen erabilera... Eztabaida etiko ugari sortu da azken urteotan medikun-tzan. Nola egiten dio aurre medi-kuak hauei guztiei? Medikuek Elkargoan jorratzen al duzue gaia?

Kode deontologikoaz diharduen kabinetean du Elkargoak eta ahol-kua eman diezazuke halakoetan,

baina gaia askoz bortitzagoa da oraingoan. Berehala egokituko zaigu paziente bat izatea kontsultan zeina ezin dugun artatu, legearen arabera. Gogorra da gero!

Dekretua bertan behera uzteko beste ekimenik jarriko duzue martxan?

Badakigu borroka luzea izango dela, urratsez urrats egin beharrekoa, eta aukera berriak ari gara aztertzen, ezin garelako orain bezala geratu, egun batetik bestera etor dakiguke dekretuak bazter-tzen duen paziente hauetako bat eta ez dugu jakingo nola jokatu. ■







DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EPAILEA,
EHUKO
ZUZENBIDE
IRAKASLEA

Koherentzia politikoa eta sinesgarritasuna

INGURU politikoari begiratzerakoan deigarria egiten zait iritziak, argudioak eta helburuak aldatzeko politikariek duten trebetasuna, eta aldaketa edo itzulipurdi horiek jasateko gizarteak daukan gaitasuna.

Azkeneko hilabeteotan ere koherentzia politikoa faltan antzeman dut hainbat kasutan; bestetan, koherentzia garbia ikusi dut. Koherentzia norberaren iritziekiko edo ibilbidearekiko eta gizartearen oinarriekiko.

Gertaera batzuk azalduko ditut:

López lehendakariak agindu du PPren Espainiako Gobernuak –eta Gorteek– erabakitako murrizketak ez dituela hemen beteko, baldin eta lege ez badago behartuta, ongizatea eta autogobernua defendatu nahi dituelako. Ongi da, bai; helburu duinak eta ezinbestekoak edozein gobernarirentzat. Baina, tamalez, Lópezi sinesgarritasuna falta zaio, gutxieneko koherentzia galdu duelako. Bestela, nola ulertu 2010. eta 2011. urteetan PSOEn Espai-

Sánchez Gordillok eta beste kide batzuek supermerkatuetan janaria ostu eta sekulako eskandalua sortu da. Ez dut nik defendatuko lapurreta eta gutxiago biolentzia, baina “eraso” horiek guztiz koherenteak iruditu zaizkit

niako Gobernuak –eta Gorteek– erabakitako murrizketak Euskadiko Erkidego Autonomoan zehazki eta zorrozki aplikatu izana? Nola ulertu orain Eusko Jaurlaritza erabiltzen ari den argudioak –autogobernuaren, ongizatearen eta negoziazio kolektiboaren defentsa...– orain arte kontuan ez izana eta juridikoki arrazoi guztiz kontrakoak erabili izana? Non daude lotura, oinarria, interes orokorra eta herritarren defentsa? Alderdiari zor dion fidelitasunak eta errentagarritasun politikoak eman diote kasu honetan “koherentzia” lehendakariari.

Andaluziako gertaerek ere zer pentsatu eman dute. Juan Manuel Sánchez Gordi-

llok eta beste kide batzuek supermerkatu batzuetan janaria ostu eta sekulako eskandalua sortu da. Ez dut nik defendatuko lapurreta –niretzat, gainera, hori ez da lapurreta– eta gutxiago biolentzia, baina “eraso” horiek guztiz koherenteak iruditu zaizkit. Koherenteak gizartean gertatzen denarekiko eta herritarrok pairatzen ari garenarekiko. Koherenteak, baita ere, herritarren eskubideekiko, funtzio sozialak mugatuko duelako jabetza pribaturako eskubidea, Espainiako Konstituzioak dioenez. Beraz, nahiz eta horretarako legeak eta prozedurak behar diren, argi dago herritarren ongizatea jabetza pribatuaren gainetik dagoela. Ekintza horiek, bada, eman den manipulazioaz gain, guztiz koherenteak izan dira eta oinarritzko eskubideei buruzko eztabaida soziala eta hausnarketa sakona probokatu dituzte.

Koherentziak mintzatzerakoan datorren urriaren 21eko hauteskundeak ere aipatu nahi nituzke. Aurtengo maiatzaren hasieran galdu zuen López lehendakariak PPren babes eta, beraz, kargura iristeko eduki zuen sostengu bakarra. Une hartan, koherentzia politikoak eskatzen zuen legebiltzarreko beste talderen batekin itun iraunkorra lortzea edota hauteskundeak deitzea. Lehendakariak ez zuen horrelakorik egin nahi izan eta, azkenik, derrigortuta ikusi omen du bere burua, nahiz eta inork ez dakien zer aldatu den maiatzetik hona.

Baina hauteskundeek beste zeresanik eman dute. Kontua da batzuek aldarrikatzen dutela ETaren mehatxuen ondorioz Euskal Herritik alde egin dutenek botoa hemen eman ahal izatea. Koherentea izango litzateke erbesteratuei itzultzeko eskubide eraginkorra bermatzea, mota guztietako laguntzak emanaz. Baina botoa hemen eman izateari ez diot inolako koherentziarik aurkitzen, botoa eman behar delako norberaren interesak jokoan dauden esparruan eta, kasu honetan, boto horrek ez du eraginik izango kanpoan bizi direnengan. Egia esan, gauza bera gertatzen da emigratzaileen botoarekin eta, beraz, hau ere birpentsatzea eskatuko nuke. ■



HEMEROTEKA

Aurrekontuetako defizitak eta zor publikoa handitzearen beharra azpimarraz, eskariak hazi eta sektore pribatuko jarduera bultzatuko dutela diote ekonomialari batzuek. Kontrako iritzia du Harry Shutt. *Red Pepper* aldizkariro webgunean azaldu du zergatia.

Keynes problema da,
ez soluzioa

Harry Shutt

♦ EKONOMIALARIA

1980KO HAMARKADAKO “iraultza” neoliberalak ez zuen erabat baztertu II. Mundu Gerraren ondoren politikan nagusi izan zen adostasun keynesiarra. Merkatuak liberalizatu eta globalizatu ziren, korporazioei eta finantzei askatasun handiagoa emanez irabaziak egiteko aukerak bilatzeko. Baina ez zen aldatu uste ofiziala: gobernuek merkatuetan esku hartu behar dutela ekonomia hazkundera eta finantza-merkatuak babesteko. Benetan ironikoa da eskaintza-estrategia –zerga zuzenak murriztean oinarritua–, Reaganek AEBetan 1980ko hamarkadan aplikatutako ekonomia muina, keynesiar estiloko defizitaren finantza-zioa izan zela funtsean, hazkundera bultzatzeko diseinatu, nahiz eta gutxi jabetu ziren horretaz garai hartan.

(...) Esan liteke ideologia keynesiarrak jarri zuela abian baliabideen esleipen desegoki eta masiboa eta horrek, progresiboki 1980ko urteetatik, eraman duela mundu osoko merkatu ekonomia ia erabateko kolapsoraino. Horregatik, ondoriozta daiteke Keynesen teoria ekonomikoek orain arte, berak zioen bezala kapitalismoa salbatu baino, balio izan dutela porrot terminalera eramateko.

(...) Halere, porrot hori ulertu gabe, keynesiarrek jarraitzen dute ekonomia hazkundera maila (BPG) sostengatzeko konpromisoarekin –edo, ahal bada, 1973 baino lehenago lortutako mailetara igotzeko ahaleginean,

hori baita behar den minimoa hazkunderaren soberakina xurgatu ahal izateko—. Helburu hori lortzeko lasterketa desesperatuak eragin ditu gaur egungo ekonomia distortsio masibak eta desorekak, bereziki aurrekaririk ez duen zor publiko eta pribatu erabilgaitzaren zama.

(...) BPGaren hazkundera alferrik bilatzeak dakartzan kalteen orde, eta geroz eta zentzu gutxiago daukan ‘erabateko enplegua’ xerkatu beharrean, ongizate ekonomikoa adierazle sozialetan neurtu beharko litza-teke etorkizunean, adibidez, osasun publikoaren bidez edo krimen mailaren bidez. BPGaren hazkunde esanguratsurik gabe, irabaziak modu bidezkoan banatu beharko litzaiteke honako oinarrietatik abiatuta: a) herritar guztiei oinarritzko errenta ordaintzea (denei gutxieneko segurtasuna ziurtatuz); b) norbanakoen irabazi osagarriak lortzeko aukerak mugatuz, gehieneko lan orduen edo lan urteen bidez eta/edo zerga progresibo altuen bidez. Irabazi nazionalen parte handiago bat masei banatzea (...). Azkar finantzatu ahalko litzaiteke gaur egungo kapital errendimendu geroz eta erredundanteagoen kuota erraldoietik”.

(...) Ezkerrak egungo miseria kaotikotik ateratzeko modua zehaztu nahi badu, XXI. mendean sartu behar du eta urgentziazko kontu gisa alternatiba hauek serio eztabaidatzen hasi. ■



BERTSO BERRIAK

Maialen
Velarde
Mujika

ALBERTO ELOSEGI / XDZ

Kontxako
estropadak

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz.

Gorri, moretan, urdin, berdeetan argitan, ilunagotan... kolore baten azpian zenbat, amets beraren borrokan. Bihotz TAUpTAdak arraun badira Kantauriaren besotan bat zutik, hamahiru tostan herri bat haien zai kostan Kontxa badator! Nahiz irakurri lehendabiziko lerrotan politena da ikusten dela gure herriko leihotan.

Orain lau urte, erronka heldu eta handitzen hasita Kontxa helburu mutil ta neska maila berean jarrita. Biak olatu berean irrist biak mareei segika biak arraunak bustita biak banderei eutsita. Garaia, arrauna denak aldatuz doazela ikusita aspertu ginen moilan geratzen gizonen zai eserita.

Liga testigu, indartsu dator Kaikukoen marinela neure mesede faborito da zumaier nesken batela. Halere “Animo!” diotelako datorrena datorrela jakin jokia horrela jolas bihur daitekela. Nahiz eta ohituraz esan “onenek irabazi dezatela” norbere herrian ospatu baietz baldin balira bezela! ■



Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Lanik ez egiteko eskubidea

NIRE azken artikulua ostean, kalean, ezagun batek esan zidan bat-batean: “Hi, guztiei oinarritzko soldata hori jarritz gero, inork ez dik lanik egin nahiko”. Harrituta utzi ninduen, batez ere, orain arte ez nekielako ziur ea norbaitek irakurtzen zituen nire artikulua.

Bada, erantzun nion: “Lanik egin gabe jende asko bizi da. Aberatsak, erretiroa hartu edo gaixotasunak dituztenak, baina batez ere, lana egin nahi eta ezin duten langabetuak”.

Lanaz hitz egiten dugunean, beti soldatapeko lanaz ari gara bakarrik, baina izan badira, soldatarik gabeko lan eremu handiak: esaterako, emakumeek egin izan ohi duten etxeko lana, edo borondatez egiten dena, eta hurbilean daukagu, horren eredu, gure herrietan arrunt izan den auzolana.

Soldatapeko lanari dagokionez, okerreña da, lana egin nahi duen askok ezin duela egin (Gure Euskal Herritxoan 160.000 langabetu daukagu), eta gainera, etorkizunean ere, merkatu global horri, eta aurrerapen teknologikoei esker, ez da guztientzat lanik izango. Gutxi batzuek asko izango dute, eta beste askok, ia denek, oso gutxi, lana, diot.

Ezagun horrek gehiegi pentsatu gabe esan zidana, ordea, gure eskumako liberekin pentsatzen dutena da. Jeltzaleek, esaterako, eskubide honi buruz Espainiako parlamentuan hitz egin zenean, hauxe zioten: “Zuek, lanik ez egiteko eskubidea ezarri nahi duzue”.

Lana soldatapetik askatzea da, oinarritzko errenta duinarekin eskuratuko genukeen benetako lorpena

Eskumakoei, argiak eurak, segituan ikusi zuten oinarritzko soldata ezartzearen ondorioa: soldatapeko lanaren presio orokorra, bizirauteko behararen presioa galdu egiten dela: lana merkatutik alderatuz, ez du euren gizarte kapitalistak funtzionatzen.

Alde batetik, gazteek, itota daudelako lanean hasi beharrean, formakuntzarako urte batzuk hartzeko aukera izango lukete, gustukoak zaizkien beste lan batzuk egiteko aukera, lan solidarioak edo lan sortzailea egitekoa, zaletasunak gartzetako. Bestetik, enpresariak lan baldintza hobetoak, soldata handiagoak, jarri beharko lituzkete, jendea eurekin lanean aritzeko, propietateak edo ongizatea “gehitu” nahi dutenentzat.

Azkenik, langileek ez lukete ordu estrarik egin beharko, jubilatutako ez lirateke ibiliko lan beltza egin beharrean, euren pentsioaz aparte zerbait gehiago irabazte aldera, eta etxeko andreak ez lirateke hain baldintza eskaseta geldituko senar langilea hilez gero.

Lana soldatapetik askatzea da, oinarritzko errenta duinarekin eskuratuko genukeen benetako lorpena. Lana merkantzia izatetik libratu. Soldatapeko lanik ez egiteko eskubidea izan, eta, aldiz, denontzat lan egiteko eskubidea ziurtatu.

Gauden garaian, merezi du saiatzeak, ez? ■



DANI BLANCO

**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Deszentralizatzen

DESZENTRALIZATZEN hasiko dela dio batek, eta besteak desintegratzen ari dela esan beharrik ez du. Ez dira konparagarriak, Piruli dorreak haize balantza handia du, Eiffelena ez da berehalakoan eroriko, lau zango ditu. Eta guk abiadura bi: Lurralde Elkargo berezi batez ari gara batean, eta independentziarako erreferenduma usaindu nahi dugu bestean. Krisiak mikro-espazioetara badarama mundua, agian ahots bat izan genezake. Ahots bat bai, baina hitzik, izanen ote dugu gure hitzik? Hautesien Kontseiluak eta Eusko Legebiltzarrak beren hautsi-mautsiak egin artean albiste batzuk oharkabean pasatzen dira gure

begien aurretik: euskararen erabileraren datu berriak. Begi baikorretik irakurriz, lurraldetxo bat salbatuko da agian, begi ezkorretik irakurriz, peko errekaraz ez ote goazen... aitzinatu dena ukatu gabe baina bukatu gabe kinka latza oraindik euskararena. Beste gatazka batek okupatuko du gure pentsamenduaren denbora, baina badugu hemen mikro-gatazka bat, hil ala bizikoa: subiranotasun politikoak jarriko al ditu hizkuntzaren subiranotasunerako oinarriak? Herri bezala bidea urratu behar badugu subirautza prozesuak beharko ditu subiraultza batzuk. ■



IRKUS M. ZEBERIO
KOMIKILARIA

«Txikitatik ikasi eta ikasi, baina ekintza ere behar da»

Kapitalismoak garaitutako mundu batean Etchegaray anarkista zaharra, Vilenkin militantea eta sandwich lantegi batean lan egiten duen poeta ekintzara pasa dira. Pertsonaiok erabilita bost lan labur argitaratu zituen fanzineetan Irkus M. Zeberio (1982, Donostia) eta hau lehen lan luzea du: *Jean-Baptiste Baigorri 1, Cramond Island*. 36 orrialde, 4 kolore eta 2.000 aleko edizioa Baigorri poetak koldarkeriatik ekintzara ematen duen jauzia kontatzeko.

| HEDOI ETXARTE |

NÚRIA DEL MORAL



Santa Klara uhartera doa Zeberio, Baigorri Cramond Islandera doan bezala.

Etchegaray nor da?

Bigarren Mundu Gerrako anarkista bat, heroi bat. Konspirazio talde batekoa da eta ekin-tzaile berrien bila dabil. Jean-Baptiste Baigorriren amona talde hartan egon zen. Gero burua zentratu zuen eta taldetik alde egin zuen. Halere, Etchegaray eta Baigorriren amona lagunak dira.

Amonak iloba galduta ikusten du, Baigorri poeta da. Sos gutxi irabazten du. Amonak zerbait egitera bultzatu nahi du eta talde anarkistan sartuko du.

Baigorrik sandwichak egiten ditu infernua. Infernua infernua da?

Ez. Infernua lantokia da. Metafora bat da. Autobusaren azken geltokiak infernu du izena. Esklaboen lan-kontratua du. Halako kritika bat da. Nire *alter ego* da Baigorri. Edinburgon bizi nintzenean lan hori nuen.

Edinburgoko fabrika katu janaria jartzen zenuen sandwichetan?

Ez, kar, kar. Baina bertan egiten genuen zopak pixa zirudien, eta enpresaburua Arzak gisa ikusia zegoen ia. Catering enpresa bat zen. Han ikusi nuen, immigrantea nintzenez, zer zen immigrantea izatea. Hango gazteak ere ikusi nituen, hemen 1990eko hamarkadan bezala, behin-behineko lana eta prekarioa egiten zutela. Komikia egiteko irrika piztu zidan. Komikiko Cristof bera existitzen zen; hango puteatua zen. Eta gustatu zitzaidan, ez puteatua egotea, bere izaera eta nortasuna baizik.

Pentsatu nuen baldintza txarretako kontratuak esklabotza direla. Gaur egun legetari buruz ere asko hitz egiten da. Esaterako



SATekoek (Andaluziako Langileen Sindikatua) Andaluzian egin duten ekintza poetikoan gertatzen ari da. Supermerkatutik janaria hartu dute. Zer da desjabetzea edo lapurreta? Egiten duzuna egiten duzula, nola interpreta daiteke? Jendeak dio «hori ilegala da», baina legeari noraino jarraitu behar diozu?

Legeez ari garela, Cristofek Bibliako aipuak esaten ditu. Hala egiten zuen?

Ez, baina oso kristaua zen. Poloniarra zen eta alde hori erabili nuen komikirako. Kristoren esaldi ezkertiarrenak hartu nituen, gertakizunetan ondo sartzen zirenak. Gainera Cristof ez da piztu oraingoz. Oso esklabo da, psikologikoki menperatuta dago. Orduan txori bat etorri zaio, Cristofek uste du Jainkoa dela eta harreman bipolarra dute, eskizofrenikoa. Ez dakigu txoria existitzen den edo proiektzioa den. Txoriak errieta egin dio: hau egin, bestea pentsatu. Komikiko beste barne istorio bat da.

Hasieran Cristofen barne ahotsa garrantzitsuenak da, gero txoriak hartzen du indarra...

Bai. Komikian 36 orri daudenez ezin izan dut eboluzio handirik egin, baina hiru edo lau orrialdetan ikusten da nazkatzen hasi dela.

Bi pertsonaiak dute barne ahotsa: Cristofek eta Baigorriren bikotekideak.

Nire nahia zen. Tira. Hau ikerketa da niretzat. Ni ez naiz eruditua. Ez naiz ikuspegi marxistan aditua. Ez nekien ildo nagusia hasieratik komunista ala anarkista izango zen. Eta Bibliarena ere sartu nahi nuen –kristaua ez naizen arren– interesatzen zaizkidalako esaldi ezkertiarak. Cristofek agian ez du Biblia behar bezala irakurri. Eskuindarrekin ez dakit nola irakurtzen duten Biblia. Agian gaur egun Jesus kartzelan egongo litzateke. Gero ez



nekien Marx edo Bakunin jarri. Eta azkenean Marx jarri nuen, komunismoaren aita... edo semea. Agian aurrerago agertuko da Bakunin.

Hasieran Marxen begiak azaltzen dira nesken titietan. Titiak begiak dira finean. Eta gero ahotsa eta aurpegia agertzen dira. Neskak ez daki zer gertatzen zaion barrutik eta azti batenera doa. Urduri dago. Aztiak barnekoa atera nahi du, demonioa duela uste du, madarikatuta dagoela, baina berez Marx da.

Biblia irakurri zenuen propio?

Teknika internauta daukat. Buruz esandakoak edo aipuak Wikipedian begiratzen ditut batzuetan. Eta irakurritakoa gustuko badut handik jarraitzen dut istorioa. Edo alderantziz, egiten ari naizen istorioa Googlen bilatzen dut.

Baigorrik ez du barne ahotsik?

Ez. Den bezalakoa da. Poeta da, baina ez du ezer bukatzen. Etxean egiten du lan. Bizi eroso da, lan gogoraz aparte, eta larritasun momentuetan ateratzen zaio poesia eta balio duena erakusten du. Nire ustez hori gertatu da gure belaunaldian, asko ikasi eta gero langabeziara. Porrot sentimen handia dago. Eta txikitik ikasi eta ikasi, baina akzioa ere behar da.

Adibidez, biolentzia erabil daiteke edo ez? Euskal Herrian gaia landuta dago, baina Occupy Wall Streeten berriro atera da eztabaida. Komikikoek akzio poetikoak egiten dituzte, baina Agatha Vilenkin biolentziaren alde dago. Norbait haiek hiltzera etorriko balitz nola salbatuko ditu biolentziarik gabe? Etchegaray nahiko txoriburua da eta Baigorri hasiberria.

Hau egiten ari nintzela lagun batek Mark Legasse aipatu zidan eta biografia irakurri nuen. Doctor Etchegaray bere antzekoa zela ikusi nuen. Anarkista, naif xamarra. Lucio Urtubiaren dokumentala ere ikusi nuen eta Stu, irlako tipoa, hasieran Lucio deitzen zen. Baina gero pentsatu nuen, zer egiten du Lucio Eskozian bizitzen. Stu deitzen bada ere, berez Lucio da.

Stu izena Stuart Christie anarkistaren omenez jarri nion. 18 urterekin Madril joan zen Franco akabatzerako. Baina atxilotu zuten. Orain argitaletxe bat dauka, editorea da. Berarekin harremanetan jarri nintzen, komikia irakurri zuen. Kontentu jarri zen.

Halako beste pasadizo bat gertatu zait Vilenkinekin. Abizen arraroa da, Ukrainakoa. Pertsonaia egin ondoren Vilenkin nirekin harremanetan jarri zen. Esan nion Alexander Vilenkin ikusi nuela "Redes" programan, uni-bertso anizkunei buruzko saioan. Istorio bat egiteko oso interesgarria. Haren alabak gutuna bidali zidan e-postaz, kasualitatea. Ea norengan oinarritu nintzen galdetu zidan.

Baina nola aurkitu zintuen?

Beste komiki bat egin nuen letoniar fanzine batean, *Le jardin de mademoiselle Vilenkin*, eta hori ikusi zuen. Praktikatzeke istorioa zen, hemengo pertsonaia daude: Jean-Baptiste, Agatha eta Etchegaray.

Kapitalismoak irabazi duen egoera azaltzen duzu. Baina halere badaude bortizkeria erabiltzen duten eskuin muturrekoak. Nortzuk dira?

Poliziak, CIA, zerbitzu sekretuak. Haietako batek arrano inperiala du buruan, laguntzailerak ere badu. Umoristikoa da, bikoteek funtzionatzen dute.

Baigorrik buru txiki bat darama idunekoa. Hartatik indiar baten espiritua ateratzen da. Zer da, alde mistikoa?

Kar, kar. Ez naiz batere mistikoa. Shuar hizkuntza hitz egiten du, jibaroen hizkuntza. Jibaroek gerra irabazten zutenean galtzaileen burua hartu, txikitu eta lepoan jartzen zuten, besteen alde onak berenganatzeko. Amonak jibaro burua eman dio Jean-Baptisteri, eta horri esker salbatzen du.

Amonak laguntzen du baina Baigorri ez da bere burua defendatzeko gauza.

Hala da. Horregatik du jibaroaren burua. Esaldiak shuar hizkuntzan daude, umeentzako eskuliburu batetik atera ditut. Uste dut «oilaskoa patatekin» esaten duela.

Ez duzu shuar hitzunen feed-backik jaso, ezta?

Ez. Kar, kar. Hizkuntza galtzen ari da.

Emakume potoloa ere hor da, enpresaburua.

Bai. Istorioak nahasten ditut, ez zen nire enpresaburua. Hasieran potolo, gero argal agertuko da, operatu ostean. Ezagun bat da. Operatu ostean esaten zuen polit zegoela, baina nazkagarria da. Azala zintzilik zuen. Gainera ez zitzaidan atsegin.

Kontrapuntuzko esaldiak erabiltzen dituzu. «Jainkoen liburua pertsonak idatzi dute» adibidez.

Bai. Jainkoa berez ez da kristaua. Hasieran oso marxista egin nahi nuen, ez nekien oso ondo nola, baina alde mistikoa sartu dut azkenean. Ondo etorri da. Jainkoa tarteko.



Cramond Island zer da?

Eskoziako uharte bat, Edinburgotik iparralderantz dago. Marea jaistean joan zaitezke, marea gora ez. Rave jaiak egiten ziren, oso giro anarkista. Bigarren Mundu Gerran arsenalak izan zela uste dut. Han bizitako gauzak jarri ditut: bizitoki izan nuen etxea. Patatak jatea gustatzen zitzaidan lekua.

Collagearen sistemarekin eraiki duzu, ezta?

Bai. Ezin ditut gauzak asmatu, oro har. Buru gabeko katua, adibidez, sorgina da berez. Ilbeteen sorginaren gorputza berreskuratzen du. Ataungo istorio bat da, aitona Ataungoa dut. Sorginak eta buru gabeko katuak. Hitzaurre gisa erabili dut, komikia hasteko. Hitzaurre amaieran txoria agertzen da. Erljio zaharra eta berria: paganoak eta monoteistak. Laboaren kanta bat erabili nuen giroa osatzeko: *Haiže begoa*.



Etsaientzat Baigorri-Etchegaray-Vilenkin kriptokomunistak dira.

Bai argitaletxeak esan zidan hala iraintzen direla ingelesez. Nik gaztelaniazkoa proposatu nuen, COPEn entzuna, "tardocomunista".

Halako batean, haxe dio Baigorrik: «lumatik ezpatara pauso bat dago. Prest al nago?». Pau-soa eman du komikian?

Modu sinbolikoan bai, akziora pasa da. Bera etxean dago, lasai. Bat-batean abenturen mundua deskubritzen du. Poeta aspirazioak ditu. Zer gehiago poeta batentzat poemak akzio bihurtzea baino?

Ekintzetako poemak nolakoak dira?

Akzio bakarrekoak ikusten dira. Lehen ale hau ez da bere lanaren adibidea oraindik.

«Zergatik egin nahi digute min? Poemak dira, ez besterik» dio Baigorrik. Zergatik?

Gaur egun poemak ez ditu inork irakurtzen. Baina zentzu zabalean sinbolo bat da, hitza albo batera utzi da. Baigorri oso inozoa da «poesia besterik ez dugu egiten» dio. Vilenkinek badaki hitzen potentzia. Occupyn ikusten da, jendeak ez daki funtzionatuko duen, hitz soilak ote diren. «Akzioa egin behar dugu?» dio batek. «Zerbait erreta zerbait lortuko dugu?» besteak.

Sententziak bilatzen ditut askotan. Ikasi beharko dut elkarrizketa irekiak egiten. Kosta

“Heziketa politikorik ez izateak armarik gabe uzten zaitu. Orain bat-batean denak ezkertiarak gara, Acampada Barcelonan adibidez, eta ezagun da hori hasiera besterik ez dela”

egiten zait. Nire erreakzio bat da, eguneroko elkarrizketak sorkuntzarik gabekoak balira bezala sentitzen ditut. Iruzurra balitz bezala. Ikasi behar dut naturaltasunez egiten. Ez dut zertan emaitza eman, nahiz eta joera dudan.

Baigorriren lehen ekintza poetikoan ikusten denez, Eskoziako Bankuko bileteetan erregina gillotinatuta dago eta irakur daiteke «buruei koroa jartzea bezain erraza da koroadunei lepoa moztea», lema ezagun bat da?

Kar, kar. Nik asmatu nuen.

Zergatik da lehen ekintza?

Libertarismoaren sinboloa da. Hemengoa izanda, gai inportantea iruditu zitzaidan, agian han ez zen hain inportantea. Batzuetan gauzak grafikoki ateratzen zaizkit. Ez naiz gogoratzen baina, agian, marrazten hasi eta Isabel II.aren buru moztua atera zitzaidan. Batzuetan istorioa marrazkitik datorkit. Esaldia bukaeran etorri zitzaidan.

Amonak borroka alboratu zuen eta gizartean integratu zen, baina gero bere ilobak borroka jarrai dezan nahi du.

Nik sentitu dudau gauza bat da. Jende asko ezkertiarra zen lehen, trantsizioan, ondoren gero eta gutxiago, agian Euskal Herrian ez hainbeste baina Bartzelonan nabaritzen da. Heziketa politikorik ez izateak armarik gabe uzten zaitu. Orain bat-batean denak ezkertiarak gara, Acampada Barcelonan adibidez, eta ezagun da hori hasiera besterik ez dela. Hemen ez gaude inoren gainetik, baina hale-re lehenagotik aipatu izan dira gai batzuk.

Acampada Barcelonako Assemblée de Barrin 60 urteko anarkista bat ezagutu nuen. Hasieran zalantzia zen. Baina gero jabetu zen denbora utzi behar zela iritsi berriei, hasieran barregura zuen, pazifismoarekin bereziki. Baina bera ere ohartzen zen bere lanabesak zaharrak zirela. Besteak ez daude prest eta zu garaiz kanpo zaude.

Hurrengo komikia noizko?

Bigarren eta azken atala datorren urtean. Irailerako porno queera egin dut fanzine batean. Orain euskaldun

futuristen komiki bat egiten ari naiz, Norvegia Berrian gertatzen da. «Libre eta Tropikala» leloa Norvegiara daramat. Klima aldaketarekin desertua handitu da. Euskaldun bat hara joan da eta Euskal Herrian gelditu den lagun bat dauka. Euskal Herria herrialde sahararren batasunean dago. Etorkizun urrunean dago kokatua, utopia bat da. ■





Egin koxk euskarari!

Matrikulatu euskaltegian

2012-2013 IKASTAROAK



Euskara ikasteko diru laguntzak · Ayudas para aprender euskera



Donostia Udalea
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzu



Helduen literatura | KONTAKIZUNAK


Birjinak.

Irène Némirowsky.

Itzultzailea: Joxe Antonio Sarasola.

Alberdania.

240 orrialde. 20 euro.



Aukeran eleberria

ASPALDI nenbilen Irène Némirowsky (Kiev, 1903 - Auschwitz, 1942) irakurtzeko gogoz. Haren garaikide izandako antzerkilari frantses baten obraren inguruko ikerketa lanean ari nintzela, orduko Paris okupatuaren testuingurua zela eta, *Dantzaldia* irakurtzeko gomendatu zidaten. *Suite frantsesa*-rekin batera, hura baita Némirowskyren eleberririk ezagunena. Ordutik izan dut heziketa frantsesdun idazle ukrainar honekiko kuriositatea. Bata zein bestea irakurri gabe, aldiz, Joxe Antonio Sarasolak itzuli eta Alberdaniak kaleratu duen *Birjinak*. Eta beste kontakizun batzuk izeneko ipuin bildumatik abiatu naiz emakume honen obra literarioa ezagutzera. Eta egia esan, ez dakit nire kuriositatea zertxobait zapuztu egin ote den.

Liburua osatzen duten hamabi kontakizunetatik bost izan ziren garaiko aldizkarietan argitaratuak, eta horietan azkenak, *Birjinak* (1942) deritzonak hain zuzen ere, irabazi du bilduma honen izenburua koroatzeko lekua. Beste kontakizunak eskuizkribuan gorde ziren, 2009. urtean liburuan argitaratu ziren arte.

Birjinak da, dudarik ez, hamabietarik txapelduna eta *Zine mintzatura* (1935) izenekoari emango nioke bigarren postua. Hauetan biltzen da gordintasun erabatekoan eta ezbeharretan oinarritzen den benetazko bizitzaz zein patuaz idazleak duen ikusmoldea; “geure indar guztiekin bizi nahi dugu edo bakea nahi dugu” (170. orr.), esango du ipuineko emakume protagonistetako batek. Pertsonaia zauritu eta hondatuek aditzera ematen dutenez ez du balio zoritxarra saihesten ahalegintzeak, hobe da aurrez aurre eta begietara begiratzea. Ondo egosiriko bizitza ez da benetazko bizitza.

Ipuin batetik bestera askotariko sentsazioak esperimentatzeko aukera izan dut. Batzuk hogeit orrialdekoak, hamar edo bostekoak beste batzuk, baina ez da ipuinen luzera kontua izan. Gorabehera ugari somatu dut liburuaren irakurketan zehar, eta nagusitzen zaidan sentsazioa asperdurarena da. Eleberri batean, hamar orrialderen tarteko asperdurak ez gaitu zertan eleberri osoa deusztatzea bultzatzen, bai aldiz ipuinen kasuan. Hala gertatu zait *Mamuak*, *Ezezaguna* eta *Magia* bezalako ipuinekin, inolako erakarritasunik gabe irakurri ditut. Némirowskyren ipuinak bizipen eta esperientzia pertsonaletatik abiatzen diren arren, trantsendentzia ontologiko unibertsal zaindu batez hornituak dira. Zentzu horretan, azpi eduki aldetik ezin zaio sakontasunik ukatu. Hala ere, gure patua josteko baliatzen dugun bizitzaren oihalez hausnartea sobera ez badago ere, karga bera garraiatzen duten hamabi ipuin irakurtzea astunegi suertatzen da. Agian eleberritik abiatzea izan zitekeen bide zuzena, eta aukera baduzue hura gomendatzen dizuet. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Txillardegiri buruzko bost ekarpen Hegats-en

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAK argitaratzen duen *Hegats* literatur aldizkariak Txillardegiri eskaini zion osoki oporren aurreko zenbakia. Zendu berri den figura omentzeaz gainera, idazlearen kosmos osoa ulertzen lagundu asmoan heldu dira liburuan biltzen diren bost ekarpenak. Aitzin solas gisa, Joxe Austin Arrietak Txillardegirekin izandako elkarriketa dakar. Fito Rodriguezek saiakeragilearen ezaugarriak nabarmendu ditu. Ander Iturriotzek, Elsa Scheelen Txillardegiren eleberrietako protagonista femenino bakarraz eta gene to gatazkaz egin du gogoeta. Alaitz Aizpuruk, berri, euskarari eta marxismoan murgiltzeaz jardun du. Azkenik, Gotzon Aurrekoetxeak euskarari batuarekiko izan zuen ardura aztertu du. ■



Jose Luis Alvarez
Enparantza
Txillardegiri “Altxa
itzazu begiak”.

Hegats literatur aldizkaria, 49 zenbakia.
Euskal Idazleen Elkartea, 2012.

Leioako toki izenen forma zuzenak

LEIOAKO TOPONIMIA ikertzen emandako hiru urteak batzen ditu bertako udalaren eta Akademiaren eskutik plazaratu den liburu honek. 800 bat leku izen jaso dira guztira. Artxibo zaharrak arakatzeari gainera, ahozko informazio iturriak ere baliatu dituzte Mikel Gorrotxategi, Iratxe Lasa eta Goizalde Ugarte ikerlariak.

Euskaltzaindiaren Onomastika arloak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena, bai eta toponimoena ere. ■



*Leioako
leku-izenak.*

Mikel
Gorrotxategi,
Iratxe Lasa, Goizalde Ugarte.

Euskaltzaindia. Izenak Bilduma. 2012.

Adin nagusitasunaren ikusmira

Harold
Leihotikan.

Gor. Iraupena: 39'42".
10 euro.



DISKO BERRIRIK ez 2006tik eta iaz 18 urtetako kantuez osatutako bilduma. Talde iruindarrak atsedean luzea hartu zuela uste genuenok erratuta geunden, beraien ibilbideko disko landuena egin baitute. Ohi bezala, kantu berriek hardcore melodikoari jarraitzen badiote ere, jokorako aukeratu duten zelaia zabala da. Elkarriketan aipatutako taldeez gain, Leatherface ere gogora ekarri didate, baina hortik harago pop-rock, emocore, garage, eskola

zaharreko punk-hardcore eta bestelako eremuetan ere irabazteko asko dutela erakutsi dute. Bestalde, oso berezia da Triana taldeko Jesus De La Rosaren kantu enblematiko bat beraien esparrura ekarri izana. Batzuek hardcore melodikoa nerabeentzat dela diote; bada, ez legoke guztia galduta nerabeek kantu hauetako hitzei arreta jarriko baliote. ■

www.leihotikan.net

LEIHOTIKAN

«Euskal Harria-k garrantzi handiko elementua izan beharko luke gure nortasunean»

“Egun baten munduak akabatuko dira”. Hainbesteko krisiak, ustelkeria, gerra... Ez al dago bukaera hurbilago?

Den-dena gaizki eta oker dago eta Arestiren hitz horiek inoiz baino errealistagoak direlakoan gaude, guztia bukatzeaz dagoela ematen baitu.

“Euskal harria” zama edo gotorlekua da guretzat?

Euskal harria-k gure nortasunean garrantzi handiko elementua izan beharko luke, sekula ez dadila fosil huts bihurtu. Gure elementu horiek guztiak modu onean hartuta, denboraren poderioz sekulakoak izan gaitezke eta bide onean goazela iruditzen zaigu.

“Haien historiak mutilatzen gaitu”. Hasiak gara historia gu idazten?

Kontua ez da guk idaztea, baizik eta gertatutakoa ezagutzea. Hainbat sasi-intelektualek saltzen diguten historia interesatuaren kontrako kanta da, umilatuaren historia ezagutu beharrean gara.

Begiz jota dituzue beti “Harold” izena duten pertsonaiak?

Izen bereko pertsonaia errealak baina nortasun, bizimodu eta garai ezberdinetakoak. Harold Whittle- sen soinu lehenbizikoz entzuten agertzen den argazkia topatu genuenean oso azala zuzena, sinple eta polita izanzen zela iruditu zitzaigun. Azalaren argazkiak jarri dio diskoari izenburua.

Bad Religion, Ezin Izan eta RKL aspaldi tatuatu zenituzten zuen larruan?

Hiru talde horiek garrantzizkoe-

netakoak izan dira gure soinu, taldean jotzen hasi ginenetik entzun eta gozatu izan ditugu. Haien estiloetan aitzindariak izan ziren.

Leihotikan begira, nola ikusten dira gauzak 19 urteren bueltan?

Taldeari dagokionez, 19 urte pasatu izanagatik ere ez dugu denboraren kontzientzia hori mantentzen. Ukaezina da hasi ginenetik gure bizimoduetan eta musikan gauzak zeharo aldatu direla, baina aldi berean beti iruditzen zaigu Leihotikan taldeari dagokionez hasiberriak garela, beti hastapenetan gabiltzala. Aspaldi honetan aisialdi eskasa izaten dugu taldean buru-belarri aritzeko, eta hala ere ilusioari eusten saiatzen gara. ■



Umeen irudimena eta potentzialtasuna Getxophoton

HORIXE DA Frank Kalero jaialdiko komisarioak gogoan izan duena aurtengo *Haurtzaroari gorazarre* deitu erakustaldiko argazkilariak hautatu dituenen. Orotara 18 argazkilariren lanak jarri dituzte ikusgai herriko kale eta aretoetan, irailaren 30era arte. Besteak beste, Robin Schwartz, Jonathan Hobin, Vee Speers, Jeongmee Yoon, Margaret M. de Lange, Roger Ballen, Jon Uriarte, Frieke Janssens eta Jill Greenberg-enak.

Jokin Aspuru Begihandiko kide eta jaialdiko antolatzaileak argi utzi nahi izan duenez, mendebaldeko umeen haurtzaroa islatu da zehazki irudietan, eta ohikoa ez den arren, begirada femeninoa ageri da batik bat, jaialdira ekarri diren argazkilariren %75 inguru emakumezkoak baitira. Bestalde, objektua haurtza-



Frieke Janssens belgikarraren irudia.

roa bada ere, “helduek garai hortaz duten irudia islatzen dute argazkiek” Aspurren iritziz.

Kalerok ez du erakusketa “politikoki zuzena” egin nahi izan. Zentzu horretan, “begirada adeitsuak” ez ezik, “gogorak” ere ageri dira. ■

Donostiako Zinemaldiak Stone eta McGregor sarituko ditu

OLIVER STONE zine zuzendari estatubatuarra eta Ewan McGregor aktore eskoziarra Donostia sari bana jasoko dute, lehenak karrera osoagatik. Horrez gain, bi sarituen azken lanak erakutsiko dira Zinemaldian. Oliver Stoneren *Savages*, irailaren 23an estreinatuko da Victoria Eugenia antzokian, eta zuzendariarekin batera, John Travolta eta Benicio del Toro aktoreak bertaratuko dira proiektoria.

Ewan McGregorrek, berriz, *The Impossible* du azken filma, eta Juan Antonio Bayona zuzendariaren aginduetara aritu da. Irailaren 27an erakutsiko da jaialdian. ■

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bernaolaren obra jasoko du

EUSKADIKO Orkestra Sinfonikoak Carmelo Bernaolari eskainiko dio euskal musikagileen bildumako 15. zenbakia. Juanjo Mena musika zuzendariarekin aritu dira grabatzen, Leticia Moreno biolin jotzailea bakarlarri dela. Gauzak ondo bidean, abendu aldera ikusiko du argia Carmelo Bernaolari eskainitako disko honek. ■

Joseba Sarrionandiaren poemak, musikaz lagunduta, BBK aretoan

BILBOKO BBK aretoak Euskal Herriko poesiaren inguruan antolatzen dituen jardunaldietan, Joseba Sarrionandiaren eta Gabriel García Marquezen poemak irakurriko dituzte aurten. Irailaren 17tik 21era bitartean iragango da jaialdia eta poesia errezitalek ez ezik, musika eta poesia uztartzen dituzten ikus-

kizunek ere osatuko dute egitaraua.

Irailaren 18an Bernardo Atxagak eta Eñaut Elorrieta eta Mikel Inunziaga musikariek Sarrionandiaren poemak eskainiko dituzte. 19an, bestalde, Yolanda Castaño poeta galiziararen *Versos para escuchar y ver* (Aditzeko eta ikusteko bertsoak) emankizuna taularatuko da. ■



Pantaila Globala erakusketa, San Telmo Museoan Irailaren 30era arte

Pantailaren botereak egunerokotasunaren esparru guztietan daude: zinema, telebista, ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, zaintza pantailak... Eta gure bizitzatan geratzeko etorri dira.

San Telmo Museoa Zuloaga plaza, 1. Donostia-San Sebastián www.santelmomuseoa.com



Saramagoren hirugarren saiakera

NOBELA HONEK, bere bizitzan idatzi zituen azkenetakoak, zabaldu zizkidan Jose Saramagoren (1922-2010) unibertsoaren atea, orain oso aspaldikoa iruditzen zaidan garai batean. Ez dakit eta ez dut inoiz jakingo zer gertatuko zen Saramago beste obra baten bitartez ezagutu izan banu; dakidana da *As intermitências da morte*-k sukar halako bat eragin zidala, hilabete gutxian Azinhagakoaren ia nobela guztiak erosi eta irenstera bultzatu ninduen. Betekada haren ondotik oso gutxitan itzuli naiz harengana. Hau da, hain zuzen, berriz irekitzeko adorea eduki dudana Saramagoren eleberri bakanetakoa.

Beste zenbaitetan bezala (*Ensaio sobre a cegueira*, *Ensaio sobre a lucidez*), Saramagok egoera ez-erreal bat erabiltzen du errealitatearen analisi gupidagabea egiteko. Kasu honetan, abiapuntua da izena aipatzen ez den baina Portugal izan daitekeen herrialde batean –beste konstante bat Saramagoren bibliografian–, halako batean jendeak hiltzeari uzten diola. Eleberriaren lehen erdian, egileak maisutasunez darabil abiapuntu hori mendebaldeko gizartearen miseria guztiak agerian uzteko. Analisi soziologiko gordina eskaintzen zaigu pasarte horietan, idazlearen trebetasunari esker eleberri izaera kontserbatzen duena. Ez zatekeen oso harritzekoa izango izenburua *Ensaio sobre a morte* ipini izan balio. Edo *Ensaio*

As intermitências da morte
Jose Saramago.
Caminho (2005).



sobre a velhice. Zeren, heriotzaz bainoago, zahartzaroari –zahartzaro eterno bati– buruzko hausnarketa egiten du hau idazterako 80 urteak beteak zituen Saramagok.

Aipatutako beste nobela bietan legez, lehen zati hori suertatu zitzaidan gustukoena. Izan ere, emandako beste adibideetan nola –*Ensaio sobre a lucidez*–en, batik bat– kontakizunaren hariak biraketa bortitza egiten du *As intermitências da morte*-ren erdian. Heriotzak bueltatzea erabakitzen duen momentuan, hain zuzen. Une horretatik aurrera, ordura arteko gizarte osoaren ikuspegi panora-

mikotik jaitsi eta pertsonaia biren gainean jarriko du lupa Saramagok; batetik, heriotza bera, emakume batengan haragituta. Bestetik, hil behar lukeen baina hiltzen ez den gizona, izenik gabekoa portugaldarraren narratibaren ohikoa denez. Ezin esan eleberriak kalitatea galtzen duenik bigarren zati horretan; baina niri, ez jakin zergatik, ezinegona eragin zidan bat-bateko ikuspuntu aldaketak.

Aldiz, oso erakargarri egin zitzaizkidan deserosotzat jotzen diren prosa saramagotarraren ezaugarri bitxi horiek: paragrafo eta esaldi amaiezinak, puntuazio arau konbentzionalenganako mespretxua... Lagun alemaniar batek, behin, etxeko apalategian zeukan Saramagoren eleberria erakutsi zidan, bere ama hizkuntzara itzulita. Portugaldarraren idazteko era berezi hori alemanaren gramatikara eramatea zein zaila den esplikatzen zidan, pasarte batzuk zein latzak gertatzen zitzaizkion... Portugaldarren obratik hain gutxi euskaratu izanaren zergatiak antzeman nituela iruditzen zitzaidan orduan. Espero dut, hori bai, noizbait eleberri hau euskaraz argitaratzekotan, izenburua ez izatea Interneteko pare bat gunetan aurkitu dudana bera: Heriotzaren aldizkakotasunak. ■



Unai Brea

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215

info@cuadribus.com

iRuNaZaRRa
TaBeRNa • JaTeXeA



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)

T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org



Euskal Herria ezagutuz

BERIAIN MENDIAREN INGURUAK

Hamaika bide gailur ospetsura igotzeko

Nafarroako lau eskualde lotzen ditu Beriaín mendiak: Sakana, Ollo, Goñi eta Urbasa-Andia.

Era guztietako ibilbideak egiteko parada eskaintzen du inguruak. Oinez edo bizikletaz egitekoak, gogorak edo errazak, eskaladarako aukerak... Menu zabal horren hiru adibide ekarri ditugu orrialdeotara, bi oinez egitekoak, eta beste bat bizikletaz.

Horiek asetzen ez bazaituztete, gehiago aurkituko dituzue berriki argitaratutako Beriaín, 19+2 gidan (www.beriaínmendia.com).

| LUIS URZAINKI |

Argazkiak: Mintxo Bidaurre, Nerea Martinez, Luis Urzainki



Beriaínen ikuspegia, Trekutik.



Olarregoikoa belardia, atzean Beriain.

DORRAO (620) - PEÑA BLANCA (1.235) - BERIAIN (1.492)

Peña Blanca, bi gurpiletan

Bizikletaz.

Luzera: 16,4 km.

Igoeraren denbora: 3-5 ordu.

Desnibela: 872 m.

Zailtasuna: Ertaina,
bide estuak.

LEZIZA IBAI ONDOTIK igotzen den bidetik joanda, Peña Blanca eta bere ingurua ezagutuko ditugu, bizikletaz egindako ibilbidean. Itzal nahikoa dago, horregatik udan egiteko oso gomendagarria da.

Dorrao herrian San Pedrora joaten den pista hartuko dugu. Beti

horri segituko diogu, borda baten ondoan bukatu arte (4,39 kilometro). Pista bukatzen den tokian, porta langa batetik pasatzen den bide batetik igoko gara.

Eskuin aldera egiten duen kurba batean bidegurutzera ikusiko dugu; gu eskuinaldera, kurba hartuta igoko gara. Berehala belardi batera iritsiko gara (6,40 kilometro), eta eskuinean ikusiko dugun sendatik igoko gara. Bidea zabalago egingo da. Hortik jarraituz basotik atera eta hesi batera iritsiko gara.

Hesia ahal den bezala pasatu ostean aurrean dugun leporantz joango gara. Behin hara iritsita,

zuzen jaitsi aurretik, nahi izanez gero eskuinera jo dezakegu, bost minutuko ibilbidetxoa eginda Peña Blancara iristeko. Bestela, zuzen behera egingen dugu bide batekin topo egin arte. Hortik eskuinera joanda *Fuente fría*-ko baltsaren ondotik pasa eta Lizarragako mendatetik datorren pistan sartuko gara. Ezkerredera egin eta aldapa batzuk igo ondoren mendebaldera bira egingen dugu. Hemen pista bukatu eta bizikletarako bide erraz batean sartuko gara. Azkeneko partean, Beriainera igo aurretik, aldapa gogor batzuk igo beharko ditugu. Osotara 16,44 kilometro.

MUNARRIZ – TREKU (1.265) – BERIAIN (1.492)

Paisaia ederrak bide errazean

Irteera: Munarriz (910 m).
Desnibela: 355 metro Trekura eta 582 Berianera.
Zailtasuna: Erraza.
Iraupena: 2h 20' Trekura eta 5h Berianera.
Autoa: Herrian.

MUNARRIZETIK datorren bidea luzea da, baina ez dago malda handirik. Hainbat paisaiatz gozatu ahal izango dugu egin beharreko ibilbide honetan, gero eta politagoak.

Herriaren goiko partean hilerriaren ondotik pasatzen den pista bat hartu eta berehala porta langa bat pasatuko dugu. Pistatik jarraitu eta goiko aldean, beste porta langa baten ondoren, pista bukatuko da (30 minutu). Eskuinera doan bide batetik segituko dugu beste porta langa bateraino iritsi arte. Hura gaingitu eta eskuinaldera doan bidea hartuz, hamar minutura, ezkerretara bira egin eta Urdanozetik datorren pista aterako gara. Ezkerretara egingen dugu orduan.

Pistan, Erna baltsa aldera 40 metroz jaitsiko gara, eta eskuin aldean langa baten ondoren dagoen senda hartuko dugu. Senda pagadi baten goiko aldetik doa; tar-teka desagertzen da, baina beti norabide bera darama. Pistatik hamar minutura Goñiko harrizko mugarekin topo egingen dugu. Bertan, muga dagoen porta langa bilatu eta pasatu behar dugu. Ondoren, zuzen segituko dugu bide zabal bat aurkitu arte. Ezkerreko joko dugu bide zabal horretan. Baltsa baten ondoren, gurutze bat aurkituko dugu; eskuinera egin dugu eta berehala San Miguel base-lizan egonen gara.

Baselizara heldu eta ezkerretara joz, hamar minuturen ondoren langa bat pasako dugu eta bertan adierazita dagoen bezala eskuinaldera jo behar dugu. Hasieran langaren ondotik joango gara eta gero pagadiaren artean aldapatxo batetik jaitsiko gara. Beheko aldean zuzen segituta, harrien artean, gora doan senda hartuko dugu. Berehala animalientzako bi aska dituen

pista batean sartuko gara, baltsa bat duen belardi batera eramanez gaituena. Porta langa pasa eta goiko askaren eta baltsaren arteko bidetik, ertzerara igoko gara. Ertz erraz eta polit horretatik jarraituz, Trekura igoko gara (2 ordu eta 20 minutu).

Trekutik argi ikusiko dugu Lizarra mendatetik Beriain aldera doan pista. Beriainera iristeko, pista horren goiko partetik jo behar dugu. Ertzaren beste aldera joan ostean, iparralderantz, langa pasatu eta jaisten hasiko gara. Hasieran langaren ondotik, eta gero harripiloek ongi adierazten duten bezala, poliki-poliki ezkerretara joanez. Deabruaren Pasabidetik igaroko gara eta Trekutik ikusten genuen pista iritsiko gara. 2 ordu eta 35 minutu.

Pista horrek mendebaldera bira egiten du eta bide goxo bihurtzen da. 25 minutuan Euskal Herriko erdigunera iritsiko gara, eta handik, beste ordubetea, Beriainen gailurrera (1.492 m) iritsiko gara. Osotara bost ordu. ■



Ezkerrean, Munarrizeko hasierako pista. Eskuinean, pagadia Munarriz eta Goñiren artean.

IHABAR - IDOITXIKI (1.255) - BERIAIN (1.492)

Irañetako portu zaharretik

Irteera: Ihabar (445 m).

Desnibela: 810 metro Idoitxikira eta 1.047 metro Beriainera.

Zailtasuna: Erraza, oso bide argia.

Igoera: 1h 35' Idoitxikira eta 2h 30' Beriainera.

Autoa: Herrian edo pistan, baina pistan leku gutxi dago.



Irañetako portu zaharra deritzon bidea, azkeneko igoera mendi bizkarreraino.

IRAÑETAKO MENDATEA Beriainera igotzeko bide erreza eta polita dugu. Pagadi zoragarri batetik pasatzen da eta benetan ederra irudituko zaigu goiko partean.

Ihabarretik aterata, trenbidea eta autobaien beheko tuneletik pasatuta dagoen gurutzean *Camino de Zalduondo* dioen seinale bat ikusiko dugu. Hark adierazitako bidetik joanen gara.

Berehala asfaltoa bukatu eta pista batean sartuko gara. Pista hasi bezain pronto, hiru norabideko gurutze bat ikusiko dugu. Zuzen segituko dugu, eta luze gabe ur-andela baten ondotik pasatuko gara.

Herritik hamar minutura bidegurutze batera iritsiko gara. Han bizpahiru auto aparkatzeko tokia dago. Guk eskuinera egingen dugu, pista-

tik, eta bertatik beste hoge minutu jarraituko dugu oinez.

Abiatu eta 30 minutura, gutxi gorabehera, beste bidegurutze bat aurkituko dugu; bide handietatik segituko dugu guk, berriz eskuinera egingez, eta beste hamabost minutuz pistatik joanen gara.

Ezkerreantzen doan bihurtuko gara bide zabala abiatzen da zuzen eta gora, eta hori hartuko dugu. Berehala estutuko da eta eskuinera joan ahala basabide

bihurtuko da. Langa bat gurutzatu eta Irañetatik datorren bidearekin bat egingen dugu.

Ongi adierazitako bidean gora egingez, Idoitxiki lepoan egonen gara hiru ordu laurdenen bueltan. Lepoaren ezkerreko aldean Idoitxiki mendia (1.255) dago. Beriainera joateko, berriz, eskuinera egingo dugu, mendi bizkarretik. Bi ordu eta 30 minutuko ibilbidea egingen dugu osotara. ■



Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com


APAIZ ORTODOXO ----- DAMU, GARBAI	TOKIA, LEKUA ----- ARABAKO UDALERRIA	AURPEGIA- REN ATALA	MERKURIOA ----- Ixo!	KONPARA- ZIOETAKO ATZIKIA ----- ALDAPA	MINTZO, BERBA ----- PERTSONALA- REN IZENA	MERKATUA ----- TXALUPAN SARTU	
"ZERGATIK ...", PERTSO- NAIAREN NOBELA BAT ----- LEGE GILE		HIGITZEN ZAILA DENA ----- PROMETIOA		BOTILETAKO TAPOIA ----- LITROA			
					BARAZKI MOTA (PLURALA) ----- ZINTZO		
SORTU ZINTUENA	RADIOA ----- MERTXIKA ANTZEKO FRUITUA			DANI BLANCO		6. NOTA ----- GARBIKETA PRODUKTUAK	
		ESNEZ EGINDAKO ELIKAGAI				ATZIZKI TXIKIGARRIA ----- ITURRI	LABORANTZA TRESNA
TARTE, GARAI ----- ABEREAK UNATZEKO							
	SUFREA ----- EGOKI, ERARA				ADAR TXIKI, KIMA ----- EGUZKI		
NIHAUR (AL- DERANTZIZ) ----- PERTSONALA- REN ABIZENA		EGUNA ----- TORTURAREN AURKAKO TALDEA			PARE BAT ----- ERREPIKA- PENA ADIE- RAZTEKO	ENERGIA ----- ZEN	NAHASTE ----- JARDUN, ERAGON
BELDURTI ----- URETAKO GATZ KON- TENTRAZIO				ARGITARA ATERA ----- URANIOA		ONARRIZKO EDARI	
					ZERBAITEN ADIERAZGA- RRI DEN IRU- DIZKO ZEINU		

P	G	A	H	A	H	A
D	L	H	I	I	G	A
P	A	P	O	X	K	O
L	E	G	E	M	A	Z
	R	A			O	N
A	M				T	X
U	N				T	X
U	X	S			A	B
U	E	N	D	B	E	O
K	A	T	A	B	I	A
G	A	Z	I	T	A	S

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Tximisten aurrean zer egin



TXIMISTAK JOTZEN BAGAITU egin behar denaz teoria bat baino gehiago dago. Ez dakit Euskal Herrian zein den tximista gehien dagoen bolada, baina uda honetan maiz samar irakurri ditut zauritu larriak eragin dituzten tximisten inguruko berriak.

Ekaitzek sortutako lainoek karga positiboa izaten dute goialdean eta negatiboa beheko aldean. Lurreko karga positiboek goranzko joera dute lainoetako karga negatiboek erakarrita, eta horiek, noski, beheranzko bidea egiten dute. Karga elektriko negatiboek lurreko bidea hartzean, airea isolatzailea denez, lurrera ailegatzeko ahalik eta erresistentziarik txikiena duen edozer topatzea, zuhaitz bat adibidez, tximista sortzeko bideetako bat da. Tximistak jotzen duen puntuan 30.000° C-ko tenperatura lor daiteke. Ekaitzaren erdian, hondartza batean zutik eta bustita dagoen pertsona batek arrisku handia du tximistak bere gorputza zeharkatzeko. Pertsona horrek korronteak gorputza zeharkatzeko hartzen duen bidearen arabera kalteak jasan ditzake; bihotza zeharkatuz gero, hura gera daiteke. Nerbioak zeharkatuz gero, koma gerta daiteke. Batzuetan oso garbi ikusi izan da nondik sartu den gorputzean tximista, gerritik gora normalean, eta nondik atera den, oinen inguruan maiz.

Tximistak dauden ekaitz baten erdian egokituz gero, badaude jarraitu beharreko aholku batzuk. Egoeraren arabera izan arren, egiteko orokor batzuk aipatuko ditugu.

Zuhaitzetatik urrun egon behar da; automobilean egonez gero bertan geratu zati metalikoak ukitu gabe; eremu zabalean egokituz gero txarrena zutik egotea eta korrika egiten hastea da, onena plastiko baten gainean edo isolatzaile baten gainean etzanda jartzea da, hantak elkartuta eta tolestuta daudelarik; lagun multzo bat izanez gero, onena bata bestearengandik hiru metroko distantziara, gutxienez, sakabanatzea da. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Efizientzia handiagoko ordenagailuak

Egungo ordenagailuen zirkuitu logikoek material erdi-eroalez osaturiko transistoreak erabiltzen dituzte euren funtzionamendurako. Transistoreek beroa askatzen dutenez, aspaldiko helburua da bero txikiagoa askatzen duten sistemak aurkitzea, askoz ordenagailu azkarragoak egin ahal izateko.

ttiki.com/41870

(Gaztelaniaz)

Naturalek bezala jokatzeko duten poro artifizialak

Naturan prozesu asko eta asko gertatzen dira hainbat materialen poroak dituztelako. Ur purua eskuratzeko, materialen artean bereizmen kimikoa lortzeko edota medikuntzan, adibidez, beharrezkoak dira poroak. AEBetako zientzialari talde batek, nanotutuen bidez, ildo berria zabaltzen du artifizialki poroak lortzeko.

ttiki.com/41871

(Gaztelaniaz)

Jakin zure aita zein den 300 dolarren truke

Eslogan horixe du New York-eko kaleetan dabilen autobus batek. Bost egunetan ematen dute emaitza eta horretarako alderatu nahi dituzun laginak eraman eta 300 dolar ordaindu behar dituzu. Aurten AEBetan 500.000 ADN proba egingo direla kalkulatu da.

ttiki.com/41872

(Frantsesez)

Hazigintza

Zuhaitzek eta arbolek fruitua eta hazia urtero ematen dutenaren ustea oso zabaldua da. Landareok urrun xamar dituenaren ustea. Ezagun dituenak badaki oso gutxi ematen dutela fruitua urte batean bai eta hurrengoan ere bai. Batzuetan bai eta beste batzuetan ez, ulertu ezinezkoa zaio askori; batez ere landareari mozkina, probetua, etekina, irabazia, emaria, errenta eta onuraren hobariaren emaitza besterik ikusi ezin dionari. Nolatan, diote, jokamolde hori? Landare maltzurra! Urtero-urtero berdin antzera zaindu eta bizitzeko aukera eman eta noizbehinka, berak nahi duenean bakarrik ematen "dit" fruitua. Hortik abiatzen da arazoa, landareak fruitua gurtzat ematen duela ustetik, fruituekarria eta uzta nahastetik... Sagarrondo batek ez du sagarra guk jateko ematen. Bere espeziearen etorkizuna bermatzea besterik ez du adaburuan fruitua ekartzen duen landareak. Eta fruiturako bidean baldintza ugari topo egin behar dute: landarea heldutasunera heldua, nahikoa jaki gorde eta pilatu izan, udaberriko loretik fruiturako tartean izotza edo antzeko ezer txarrik ez gertatzea eta, garrantzitsuena, landareak fruiturako gogoa izatea.

Pagatxa eta ezkurra, *Fagus sylvatica*, pagoaren eta haritzaren, *Quercus* sp., haziak bildu nahi eta urte bate-tik besterako gorabeherak eta joerak ulertu ezinik galdetza etorri zait sukaldari bat. Hasteko, ehunka urte biziko den zuhaitzak ez du fruiturako inolako presarik: 35-60 urterekin

hasiko dira, pagoa lehentxeago hazi antzuak emanez. Sakabanatuta edo bakar antzera bizi den aleak pagadian edo hariztian bizi denak baino gazteago ekingo dio; jaki gehiago du sustrai erara eta espeziean gehiago pentsatuko du... Sagarrondo batzuk biz behin ematen duten eran, pagoak lauzpasei urtez behin emango du pagatxa eta haritzak bi-hiruz behin ezkurra. Bere gaitasuna ezagutu, indarrak neurtu eta aukerak egoki kudeatzearen ondorio da fruitualdia. Fruitua berandu heltzen duten landareak ahituta iristen dira neguaren atarira. Fruitu asko badu, udaberrian bertan badaki zer negu datorkion eta hurrengo



Pagoa, *Fagus sylvatica*; lauzpasei urtez behin ematen du fruitua.

urtean alerik ez hartzea erabakitzen du. Eta erabakia non edo han jaso eta bete. Nahikoa indar baduenean emateko erabakiarekin egingo duen gauza bera. Fruitua goiz ematen duten arbolekin ez da horrelakorik gertatzen. Goiz-sagarra, gerezia eta antzekoek udaren hasieran fruitua botata dute, eta negura artekoa indarrak berritu eta jaki erreserbak osatzeko badutenez, urtero fruitua emateko joera izango dute.

Aurtengoa bezalako uda bero eta agorren ondorengo urtean izaten omen du pagoak lauzpaseikako pagatxa urte hori. ■



EARTHRESTORATIONSERVICE.ORG

8

AEBetako hiri handienetako kaleetan landatzen diren zuhaitzen batez besteko bizitza zortzi urtekoa dela esaten da. Ingurumen desegoki eta hiltzaile horretara ondoen egokitu den espeziea ginkgoa, *Ginkgo biloba*, omen da. Milioi-

ka urtetan beste espezie asko desagerrarazi dituzten lurra eta klima gorabeheretatik bizirik iraun duen espeziea da, gure kutsadura erailtzaileari aurre egiteko ongien prestaturiko zuhaitza. ■



WWW.TREESFLOWERS.COM



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua **landareak@argia.com** helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Psametiko faraoia lehen hizkuntzaren bila



Psametiko I.a Ra jainkoari eskaintza egiten, faraoiaren hilobiko erliebe batean (Tebas).

haurrek zentzurik gabeko soinuak egin ohi dituzten garaia gaindituta, Psametikoren bi giza akuriek esaten zituzten lehen hitzak gizakien jatorrizko hizkuntzarenak izango ziren. Ondorioz, hizkuntza horren hiztunak lehen gizakien ondorengo zuzenak izango ziren.

Esperimentuak bi urte bete zitue-nean, artzainak faraoiarekin biltzeko baimena eskatu zuen. Haurrek lehen hitzak esan zituzten, eskuak luzatzeaz bat, zerbait eskatzen ariko balira bezala: *bekós, bekós*.

Ez artzainak, ez faraoiak, ez zekiten hitz horrek zer esan nahi zuen, agintariak jakintsuen batzordea bilduarazi zuen, hitzaren jatorria eta esanahia aurkitzeko. Hainbat egune-tan eztabaidan aritu ondoren, zera ondorioztatu zuten: hitza frigierazkoa omen zen eta “ogia” esan nahi omen zuen. Frigiarrek ia Anatolia osoa —egungo Turkia— hartzen zuten garai hartan.

Beraz, faraoia oker zegoen, egip-toarrak ez ziren lehen gizakiak (eta artzainak ez zituen bi haurrek ondo elikatu, jakintsuen batzordea zuzen egonez gero, behintzat).

Batetik, bistan da Psametikoren esperimentuak ez zuela inolako oinarri zientifikorik, ez eta zentzu handirik ere, gaurko hizkuntzalaritzak erakusten diguna aintzat hartuz gero. Alegia, hizkuntza guztiek antzinatasun bera dutela, eta guztiek dutela jatorria ari berean.

Hala ere, Psametiko ez zebilen gizakiaren jatorria zein den asmatetik oso urrun; orain arteko *Homo Sapiens* arrasto zaharrenak Etio-pian aurkitu zituzten arkeolo-goe, egip-toarren zibilizazioaren oinarri izan zen Nilo ibaiaren iturburuetako batetik hurbil. ■



Arrastoak

Siriako gatazkaren beste albo kalteak

Siriako gatazkaren ondorio larrienak giza galerak dira, baina kultura eta historia ondarean ere kalte handiak ere eragin dituzte, eta eragiten ari dira, azken urteko bonbardaketek eta erasoek. Gune kalte-tuen artean hauek daude: greziar eta erromatar garaiko Apamea hiria, Palmira, Damaskoko Midan auzoko zoko zaharra, Aleppoko gaztelua... Baita beheko irudietan ageri diren guneak ere. ■



Goitik behera, Bosrako erromatar garaiko etxeak, Homseko Bab al-Turkman auzo zaharreko kalea eta hiri bereko Umm Al-Zinar eliza ortodoxoa, bonbardaketen ondoren.

JATRI ADUH

FRONTE POLISARIOA

«Sahararrek presio handia egiten diote Polisarioari gerran hasteko»

Jatri Aduh Mendebaldeko Saharako parlamentuko presidentea da eta Marokorekin izaten ari diren negoziaketan buru. Gaur egungo egoeraz eta gerora begira Polisarioak hartu beharko dituen erabakiez aritu da ARGIArekin.

Testua eta argazkiak:

| ANDONI LUBAKI |

Zertan dira gatazka hau konpontzeko Marokorekin izaten ari zareten elkarriketak?

Gaur egun Marokok ikusi du oso momentu latzean dagoela arazoaren aurrean. Inork ez du bere pro-

posamena aintzat hartzen, hau da, Mendebaldeko Sahara Marokoren barnean autonomia batekin batzea. Nazio Batuek (NB) diote sahararroi gure borondatea erreferendum bidez aukeratzea zor zaigula, ez

beste edonolako irtenbiderik. Modu demokratiko batean erabaki behar dugu, inongo xantaiarik gabe. Marokok autonomia ez den beste irtenbiderik ez duela onartuko esan du. Hortaz, gatazkaren konponbi-

“Gatazka konpontzea oztopatzen ari dira. Begira bestela Espainiak gurekin lanean aritu diren GKEekin zer egin duen.”





"Lurralde askatuetao segurtasunaren ardura guk dugu. Erakutsi dugu, gainera, ondo baino hobeto egiten dugula."

derako elkarriketak nahiko etenda daude.

Gaur egungo egoera ikusita, gatazkaren konponbidea erabat geldirik dagoen garai honetan, zer ikusten duzu falta dela arazo hau konpontzeko, eten hori ekidin eta berriro elkarriketan hasteko?

Beldur handia ematen dit, arazo hau konpondu ahal izateko, aginte sendo eta eraginkorra falta dela ikusteak. Protagonista izan behar luketen lurralde batzuk beste alde batera begira daude, Espainiako eta Frantziako estatuak adibidez. Bi estatu hauek ez dute eman arazoa konpontzeko aurrerapausorik. Esango nuke gatazka hau konpondu dadin hartu beharreko erabakiak oztopatzen ari direla. Begira bestela Espainiako Gobernuak gurekin elkarlanean aritu diren GKEekin zer egin duen. Zorionez, GKE hauek badakite hemengo egoera zein den eta ez dira exekutiboaren trikimailuetan erori. Maroko laguntzen saiatzen dira, beraien betebeharrak historikoen aurka joanaz gainera.

Kolonizatu gintuen Espainiako Estatuaren rol indartsu horren falta sumatzen dugu. Marokoren menpe dagoela dirudi nazioartean zer edo zer egin nahi duen une orotan. Ez dugu ahaztu behar, halaber, Ameri-

kako Estatu Batuek sekulako erantzukizuna dutela gure herriarekiko. Beraiek lagundu zioten Hassan II.ri Mendebaldeko Sahara inbaditzen 1975. urtean.

Ez dago benetako presiorik indar horien aldetik gatazka hau amaitzeko; orduan sahararrok egin behar dugu presioa. Ez dugu beste irtenbiderik. Armak berriro hartzea ez dugu baztertzen, eta ez dugu inoiz baztertuko gainera. Sahararrok azken aldian eztabaidatzen ari gara, ez armak hartu behar ote ditugun, baizik eta noiz eta nola hartu gataz-

"Sahararrok eztabaidatzen ari gara, ez armak hartu behar ote ditugun, baizik eta noiz eta nola hartu gatazka honi irtenbiderik eman nahi ez badiote"

ka honi irtenbiderik eman nahi ez badiote. Guk egin behar dugu presioa eta presio hori armekin bada, aurrera!

Ildo horrekin jarraituz, azken urteotan, kanpamentuetara etortzen den orok nabari du armak hartzeko gogoz daudela saharar errefuxiatuak.

Bai, gainera ez bakarrik errefuxiatuak, baita lurralde okupatuetaoak

ere. Gazte bati galdegiten badiozu berak segituan esango dizu armak hartzearen aldekoa dela. Ulergarria ere bada, zeren hemen, kanpamentuetan, ez dute inongo etorkizunik, ez eta lanik eta bizi baldintza onik ere. Hortaz, kanpora alde egiten dute lan bila, beraien bizimodua hobetzeko. Aldiz, hemen gelditu behar dutenak —eta joaten diren askok ere— armak hartzearen aldekoa dira, bizitza galduta ere ez omen dute ezer galtzeko.

Polisarioaren zuzendaritza presionatzen ari dira, bai orain aipatu dizkizudan gazte horiek, baita emakume sahararrak ere, lehen gatazkan ibilitako agureak ahaztu gabe. Beraiek badakite zer den gerra egitea, lagun eta senitartekoak galdu dituztelako, eta hala eta guztiz ere gerraren aldekoa dira. 21 urteren ondoren traizionatuak sentitzen baikara, erreferendumik ez dute antolatu eta.

Nola saihestu dezake Polisarioak gatazka armatu hori?

Polisarioa ahalegin guztiak egiten ari da hori eragozteko. Diplomaziaren arloan asko mugitzen ari gara. Afrikar Batasunak (AB) presio handiagoa egin beharko luke, deskolonizatu ez den lurralde honen gatazka behin betiko konpontzeko. Baita Espainiako eta Frantziako estatuak ere, oztopoak jarri ordezt, lagundu egin beharko lukete Nazio Batuek (NB) derrigortzen duten helmugara iristera, hau da, Mendebaldeko Sahararen benetako deskolonizazioa burutzea. Oraindik, ofizialki, lurralde hori espainiar kolonizatzaileen menpean dago eta. Hau gertatzen ez bada, inguruotako egonkortasuna pikutara joango da, gaur egungo egoera okertuko litzaiteke, jadanik nahikoa txarra den egoera.

Azken aldian segurtasun arazoak izan dituzue errefuxiatu sahararrek. Badirudi lurraldea ezegonkortasunean murgilduta dagoela. Bahiketak, lapurretak, muturreko islamismoa, eta abar. Zer dio Polisarioak horri buruz?

Gu, sahararrok, ABeko partaide eta kide gara. Hortaz, partaide garen

Azken koloniaren ondarea

1975ean Espainiak Sahara Marokoren eta Mauritaniaren menpe utzi zuenetik –Nazio Batuen informeei muzin eginez–, gatazkan dihardute sahararrek. Horietako asko Aljeriako errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira. 1979an Mauritania beraien lurraldeetatik kanporatu ostean, Marokoren aurka aritu ziren, 1991. urtean su etena sinatu zuten arte. Su eten horretan, 6 hilabeteren buruan independentzia lortzea edo Marokoko probintzia izatea erabakiko zuten sahararrek. Erreferenduma galduko duela ikusita estatu alaiarra behin eta berriz saiatu izan da galdeketa oztopatzen, mila trikimailu erabiliz gainera. 1991. urteaz geroztik inongo fruiturik eman ez duten negoziaketetan dabilta bi aldeak.

Azken urteetan Marokok jarraera aldatu eta erreferenduma egiteko autonomiaren aukera sartu nahi izan du. Hala eta guztiz ere, behin baino gehiagotan saiatu izan da trikimailuak erabiltzen, galdeketa horretan nork hartu beharko lukeen parte adosteko. *Ibilaldi Berdearen* ondoren sartu ziren iparraldeko marokoar txiroak ere bertan parte hartzea nahi dute. NBak kexu dira, Rabatek erregistroa faltsutzen duela eta. Horrek eragozten du jakitea zein pertsonak duten galdeketa botoa emateko eskubidea.

Hori gutxi balitz, azken aldian bahiketen eta muturreko islamismoaren arazoa ari dira jasaten errefuxiatuta dauden sahararrak. Enric Gonyalons, Ainhua Fernan-

dez eta Rosella Urru, hainbat GKEetan zebiltzan langileak bahitu zituzten Rabounin zeudela. Informazio askok Marokoren esku beltza ikusi du honen atzean, ondo baino hobeto baitaki Rabatek, Tindoufeko errefuxiatu kanpamentuetako diru iturri handiena bertaratzen diren laguntzaileak direla.

Azken hilabeteen Rajoyren Gobernuak antzeko zer edo zer egin nahi izan du GKEen segurtasuna aitzaki hartuta, eta kooperatzen ari diren lagunak bertatik ateratzeko agindua eman du. Polisarioarentzat “Marokoren presioengatik hartu dute erabaki hori”. Hala ere, ia GKE guztiak bueltatu dira Tindouf inguruko kanpamentuetara lanera.

aldetik gure betebeharrak onartzen ditugu. Guk zaindu behar dugu inguru hauetako egonkortasuna, gure lurraldeko egonkortasuna. Ez beste inork. Lurralde askatuetao segurtasunaren ardura guk dugu. Erakutsi dugu, gainera, ondo baino hobeto egiten dugula. Bahiketarenak sorpresaz harrapatu gintuen, zorionez dena ondo amaitu da eta ez dugu berriro horrelako kasurik gerta dadin utziko. Ez dugu onartuko laguntzen gaituen jendearen bahiketarik, ezta gure artean dauden bisitari, kazetari eta MINURSOko kideen aurkako ekintzarik ere, inolaz ere.

Gure lurraldearen burujabetza guk dugu, ez Marokok, horrela sinetsarazi nahi badigu ere. Mendebaldeko Sahararen auzoko herriekin harreman estua dugu segurtasunaren gaia dela eta, Marokorekin izan ezik. Edozein mehatxuren aurka borrokatuko dugu, bai droga trafikatzailen aurka, bai lapurren aurka baita muturreko islamismoaren aurka ere.

Marokori ere proposatu izan diogu arazo horien aurkako elkarlana. Baina erantzuna ezezko borobila izan da. Gu, aldiz, behin eta berriz saiatzen gara elkarlana eman-

korra izan dadin, baina beti ezezko erantzuna jasotzen dugu.

Ez gaude toki samurrean kokatuta segurtasunari begiratzen badiogu, hori egia da. Gure inguruko lurralde askok ez dute batere segurtasunik. Hortaz, gure lana ere bada inguruko lurraldeei laguntzea arazo horiek konpondu ditzaten. Baita bahiketen kasuan ere. Europar Batasuneko herritar batzuk bahituak dituzte oraindik ere, eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu bahiketa horiek ondo amaitu daitezen. Elkarlana ezinbestekoa da. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Eguzkia ekialdetik sartzen da

Aragoiko Gobernuak filigrana linguistikoa asmatu du Sartaldeko Zerrendan (Franja de Ponent katalanez) hitz egiten den hizkuntza mendebaldeko katalana dela onartu nahi ez duelako. Lege proiektuan “ekialdeko aragoiera” izenez bataiatu du.

Izendapen azientifikoa ez dute ontzat hartu, ez Zaragozako Unibertsitateak, ez Eskola Kontseiluak, ezta Aragoiko Hizkuntzen Kontseiluak ere.

| ÁLEX MILIAN / EL TEMPS |

“BENAVARRIN (Baixa Ribagorça) hitz egiten dena ekialdeko aragoiera dela esaten duen txosten zientifikoa ekartzen badidate, hitz egingo dugu. Gaur egun, inork —ez unibertsitateak ezta nazioarteko komunitate zientifikoak ere— ez du zalantzan jartzen han hitz egiten dena katalana dela, salbu eta taldexka sasizientifiko edo sasilinguistikoren batek”. Benavarriko alkatea, Alfredo Sancho sozialista, irakaslea da eta Aragoiko Eskola Kontseiluan ordezkaria. Kontseiluan hizkuntzen legeaz eztabaidatu zuten eta Sanchok zuzenketa aurkeztu zuen legearen kontra. Aragoiko Gobernuak proposatutako zirriborroa gehiengoak atzera botatzea lortu zuen.

Aragoiko Gobernuak Eskola Kontseiluari zirriborroaren 5. kapituluaz baino ez zion iritzia eskatu. Kapitulu horrek jorratzen du hizkuntzen irakaskuntza eta gobernuak pentsatu zuen Eskola Kontseiluak ez zuela erreparatuko hizkuntzei nola deitzen zitzaien. Baina legeak ahulgune asko ditu eta Sanchok gustura zuzendu ditu. Hasteko, “zergatik ez du esaten zehazki zein hizkuntza irakatsi behar diren?”. Kritika argia eta gar-

Zaragozan egindako bilkura. Aragoiko zati batean katalana hitz egiten denik ez dute onartzen argazkiko aragoiarrek. No hablamos catalán plataformakoek antolatutako zuten bilkura.




NOHABLAMOSCATALAN

bia da: “Nola irakatsi hizkuntza, ez badakigu zein hizkuntzaz ari garen?”.

Bigarrenik, Benavarriko alkateak esan du legeak “zorroztasun zientifikoa bermatu” behar duela, eta legea filologia unibertsalaren irizpideetatik urruntzen da, filologoek aragoiera eta katalana deitzen dieten hizkuntzei lege proiektuak Aragoiko hizkuntzak deitzen dielako.

Hirugarrenik, 5. kapituluak “hizkuntzen irakaskuntza” aipatzen badu ere, ez dute esaten “irakasleek zein prestakuntza, akreditazio edo titulazio” izan behar duten. Laugarrenik, “ez da esaten irakaskuntza bukatutakoan ikasleek zein ziurtagiri izango duten”. Orain arte, irakaskuntza katalanez egindako ikasleari B mailako (erdi mailako) egiaztagiria ematen zitzaion, Kataluniako Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Orokorrek emandakoa.

Sanchok lortu zuen Eskola Kontseiluaren gehiengoak 5. kapituluaren kontra bozkatzea. Sindikatueta ordezkariek, guraso elkarteek, berrikuntza pedagogikoko mugimenduek eta herrietako ordezkariek bozkatu zuten kontra. Herrietako PPko eta PAREko (Partido Aragones) ordezkariek ez zuten bozkatu. Zirriborroaren alde bozkatu zuten administrazioko



“Benavarrin (Baixa Ribagorça) hitz egiten dena ekialdeko aragoiera dela esaten duen txosten zientifikoa ekartzen badidate, hitz egingo dugu. Inork ez du zalantzan jartzen han hitz egiten dena katalana dela”

Alfredo Sancho, Benavarriko alkate sozialista

ordezkariek, patronal pribatukoek eta eskola kontzertatuetako patronalekoek.

Eskola Kontseiluko hurrengo bileran Aragoiko Gobernuako Hezkuntza, Unibertsitate, Kultura eta Kirol kontseilariak, María Dolores Serratek, hartu zuen parte. Gironako Ripollen jaio zen 1955ean, katalan hiztuna da eta hizkuntzen legea bultzatzen duen saileko arduradun nagusia da. Alfredo Sanchoren galderari erantzunez, esan zuen asmoa ez zela “eztabaida filologikoa” sortzea, berak “erdialdeko katalana” hitz egiten zuela, Aragoiko Zerrendan hitz egiten denaz desberdina eta azken horri aragoiera deitu nahi ziotela “Valentzian valentziera deitzen dioten bezala”. Eta esan zuen legeak “familia arazoak” sortu zizkiola.

Kontua da legeak, katalanari izena aldatzeaz gain, aragoierarekin nahasmenia sortzen duela. Aragoiera Aragoiko iparraldean hitz egiten den hizkuntza da eta atzerakada handia izan du gizarte erabileran.

Akademia bat bi hizkuntzentzat “Legea bi hizkuntzen nortasuna ukatzeko modua da. Tiro batekin bi txori botatzen ditu: aragoieraren batasuna ezeztatzen du, zeren hainbat hizkuntzatan banatzen du; eta katalana

Graduondokoak euskaraz UPV/EHU 2012-13 ikasturtea

Master ofizialak:

- Euskal nazionalismoa XXI. mendean
- Hizkuntzalaritza eta euskal filologia
- Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua
- Multimedia komunikazioa. EHU-EITB unibertsitate-masterra
- DBHko, Batxilergoko, LHko eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza

Unibertsitateko espezialista tituluak (berezko tituluak):

- Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX.-XXI. mendeetan
- Hizkuntza-plangintza
- Itzulpena eta teknologia
- Software librea: sistema, sarea, segurtasuna eta web-aplikazioak
- Neuroerregulazioa
- Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak



Informazio gehiago:
www.ikasketak.ehu.es

Babeslea: Euskal Herriko Unibertsitatea

ukatzen du, hizkuntza hori baita gehien izorratzen diena”. Ramón Sistacek dio hori; Huescako Camporrellsen jaioa, Institut d’Estudis Catalaneko (IEC) Filologia Saileko kidea eta Zentro de Estudios Ribagorzanseko hizkuntza saileko zuzendaria da. “Aragoiko hizkuntzak hitz egiten direla esatea ezer ez esatea da: hizkuntzak indargabetzea eta patuesaren mailan jartzea”.

Legeak Aragoiko hizkuntzentzako akademia aurreikusten du. Sistacek salatu duenez, “IEC zanpatzea da hori. Katalana hitz egiten den lurralde guztietan lituzke eskuduntzak eta eskuduntza horiek Espainiako Estatuak ematen ditu. Estatutik kanpo eztabaidatzekoa litzateke, baina Aragoi IECek ditu hizkuntza akademiaren eskuduntzak. IEC ez da Kataluniako erakundea, estatukoa baizik”.

Aragoiko Gobernua baldar saiatu da arrazoitzen akademia berriaren asmoa. Alegia, beste autonomia erkidego bateko akademia batek Aragoi eskuduntzak izatea saihestu nahi du. Sistacek zera gogorarazi du: “Argi dago, ahaztu zaie La Real Academia Española ere, kanpoko erakundea dela eta kirteneria handia litzatekeela Aragoi norbaitek gaztelaniari buruzko arauak ematea”.

Dena dela, Sistacen ustez “legearen astakeria handiena da akademia ez luketela akademikoek osatuko, baizik eta politikariek, hala ondoriozta daiteke behintzat zirriborroa irakurrita”.

Hizkuntza politizatzea

Legearen sorburua eta asmoa politikoak dira, nabarmen, *El Temp*ekin hitz egin duten adituen ustez. Sistacek dio bi gauza hartu behar direla kontuan. Batetik, PPren kanpaina katalanaren kontra: gerra aitortua parafernalia guztiarekin, artilleria, abiazioa eta itsas armada Valentziar Herrialdean, Balear Uharteetan, Katalunian –murgiltze sistemari buruzko epaia– eta orain Aragoi.

Bestetik, Sistacek Sartaldeko Zerrendan Partido Aragonésen (PAR) presioa aipatu du: “PPri oin

puntetan igarotzea gustatuko litzaioke. Legea indarrean sartu gabe, zaratarik atera gabe ibil zitezkeen, baina PAREk odola eta haragi freskoa nahi du. PAREko muturrekoenak estutu ditu eta ez dute jakin lotura horretatik askatzen”.

“PPri oin puntetan igarotzea gustatuko litzaioke. Legea indarrean sartu gabe, zaratarik atera gabe ibil zitezkeen, baina Partido Aragonésen odola eta haragi freskoa nahi du”

Ramón Sistac, Institut d’Estudis Catalaneko kidea

Alfredo Sanchok Partido Aragonésen eskua sumatu du: “Seguru PAREN eta Aragoiko PPko adar erradikalenaren presio politikoa dagoela. Horiak ez dute katalanaz ezer jakin nahi. Izena bera da izorratzen diena”.

Natxo Sorolla soziolinguistaren ustez, “helburu inportanteena eztabaida gai nagusitik urruntzea da, hots, gai nagusia da biztanleria osoak elebidun izan beharko luketela, eta haiek hizkuntzaren izenaz eztabaidatzen ari dira”.

Gobernua prestatzen ari den legearen aurka agertu dira Zaragozako Unibertsitatea, Aragoiko Hizkuntzen Kontseilua, Zaragozako Udala eta Aragoiko Zerrendako hainbat udal

Orain egoera larriagoa da, zeren Sartaldeko Zerrendan katalanak gaixotasun kronikoaren sintomak agerian ditu. Sorollak dioenez, “trantsizio soziolinguistikoa gaude: 2003an Aragoiko Gobernuak egindako inkestaren arabera, Aragoiko Zerrendan %88k katalana ezagutzen zuen”. Sartaldeko Zerrendan lurralde gehienak landa eremuak dira, ez dute etorkinik, baizik eta kanpora alde egin dute. “Horri esker, katalanak kaleko hizkuntza izatea lortu du”, Sorollaren esanetan. Baina katalana egiteko

hori galtzen ari da. “Haur-gazteekin egindako ikerketa berriek diote katalana katalan hiztunen artean baino ez dela erabiltzen eta haien artean ere ez beti. Hau da, hizkuntza ordezkapena ari da gertatzen, Alacanten eta Ipar Katalunian hainbat gunetan antzeman den bezala. Arrazoi batzuegatik ari da gertatzen: prestigio galera (hizkuntzaren izenari buruzko zalantzek eragiten dute), irakaskuntzan ez erakustea, hedabideetan ez agertzea eta bestelako hizkuntzak hitz egiten dituztenek kaleko erabilerarako gaztelania aukeratu izana”.

Horregatik guztiagatik, Aragoiko Zerrendan erantzuna irmoa izan da. Hizkuntzaren alde egiten duten elkarte guztiak mugitu dira eta katalanaren ahuldea erakusten duten datuak gogora ekarri dituzte. Matarranyako kultur elkarteak, Zentro de Estudios Ribagorzansek, Institut d’Estudis del Baix Cinca eta Iniciativa Cultural de la Franja adierazpena egin dute: “Katalanak gure eskualdeetako ondasun gisa iraun dezan, beharrezkoa da erakundeek hizkuntza onestea, eta batik bat, derri gorrezko irakaskuntzak bermatu behar du eskualde hauetako biztanle guztiek katalana eta gaztelania ezagutzea. Ikasleak katalanez eta gaztelaniaz alfabetatzeko politika kontzientek baino ez du salbatuko ahul dagoen ondasuna”.

Gobernua prestatzen ari den legearen aurka agertu dira Zaragozako Unibertsitatea, Aragoiko Hizkuntzen Kontseilua, Zaragozako Udala eta Aragoiko Zerrendako hainbat udal. Ramón Sistacen ustez, erantzun gehiago izango dira. “Eskubide bat kentzen dizutenean igarri egiten duzu. Lehen ez zegoen ezer, baina eskoletan irakasteko aurrerapausoa eman denez, orain erantzuna egongo da”. Benavarriko alkatea kexu da, berriz ere hizkuntza politizatu delako. “Hizkuntzen legea beti tripetatik maniatzen da, ez buruarekin. Baina liztor habia astinduz gero, badakigu zer gerta daitekeen”. ■



Bahea

Toni Mollá kazetariak
gipuzkoaeskara.net-en esanak:

“BARÇAK 1976. urtean aurkitu zuen bere ahotsa, Joaquim M. Puyalek Ràdio Barcelona irratan lehen partida katalanez kontatu zuenean. Ordutik egindako ia 2.500 irratsaioak egiazko eredu izan dira Kataluniako edozein irratiarentzat. Kazetari gazte baten ardura pertsonala garrantzi handiko jazoera soziolinguistiko bilakatu da, gaur egun ohiko hizkuntza baita katalana Barçaren emanaldietan Kataluniako edozein irrati publiko nahiz pribatutan. Puyalek berak aitortu zuen abileziak Vilarealen, eredu hori irratietatik harago biderkatu dela bertutezko zirkulu horren sorrerari esker, non hizkuntza katalana eta Messi-Guardiola belaunaldiak futbolearen erakutsitako bikaintasuna elkar elikatu baitira”. ■

Aitor Arana Gesalazko eta Jaitzeko XIX. mendeko euskara jasotzen duen hiztegiaren egileak, Berrian:

“HELBURUA herritarrek bertako euskararen berri izatea da. Dena den, badaude euskalkia ikasteko interesa duten pertsonak. Pertsona bakar batek ikasiko balu ere, merezi du hiztegia egitea. (...) Ikaragarri eskasten ari zaigu euskarazko hiztegia. Saiatzen ez den jendeak oso hiztegi murrizta izaten du, eta oso hitz gutxiarekin kontatzen ditu esan beharrekoak. Eta pena da. Ez dut ezagutzen hizkuntzarik hiztegiaren gabezia daukanik, hizlariak dute gabezia”. ■

Iñaki Lasak Berrian esanak:

“IV. INKESTA soziolinguistikoko ondorioetan bi ideia garrantzitsu irakur zitezkeen, orain ere gaurkotasun handikoak. Alde batetik, euskara erabiltzeko baldintza egokiak behar direla esaten zen, eta horiek esparru eta gune gutxitan gertatzen zirela aitortzen zen; beste alde

Talaian

Erreskatea eta nazio burujabetza

BOST DOIKUNTZA PLAN GOGORREN ONDOREN eta 42.000 milioi euroekin oso larri zorpeturik, Kataluniako Generalitat-ak joan den astean erabaki zuen Espainiako Gobernuari erreskatea eskatzea. Autonomientzako Likidezia Funtsera jo du, 5.063 milioi euroekin urte bukaera arte kitatu beharreko zorrari aurre egiteko.

Generalitateko bozeramaileak ohartarazi du ez dutela “baldintza politikorik onartuko”, doikuntza programek exijitzen duten baldintza “teknikoetatik” harago. Diotenez, kopuru milioidun hori katalanek zergen bidez ordaindu dute eta ez da Katalunian inbertitu.

Politikari katalanek ordea, badakite dirua uzten duenak baldintzak jartzen dituela, Europak bankuen erreskatearekin egiten duen gisan eta laster etorriko den Espainiako Estatuko ekonomiaren erreskate orokorrearekin gertatuko den moduan. Ondorioz, erreskate horren ondoren, politikariek nahi dutena esango dute, baina Katalunia botere zentralaren eskurago egongo da. Madrilekin are dependentzia handiagoa izango du. Jadanik mugaturik dagoen autonomia katalanean esku hartuko du gobernu zentralak eta autonomiaren nahiz burujabetzaren kontrako filosofia inposatzeko aprobetxatuko du. Espainiako Ogasunak Kataluniako mugimendu guztiak kontrolatuko ditu.

Kataluniako erreskateak mahai gainean jarri du burujabetzaren inguruko eztabaida, bai Kataluniako nazioarena eta baita Euskal Herrikoa ere. Autonomiaren bidetik segitzeak dependentzia gehiago edo gutxiago izatera garamatza, egoeraren larritasunaren arabera. Aldiz, herri bakoitzaren zerbitzura dagoen fiskalitatea erabaki eta kontrolatuz gero, gure ekonomia eta finantzazioa antolatzeko atea ireki dezakegu. Espainiako Estatuaren egungo ereduari lotuta segitzea gure nazioentzat egiazko zama larria da. Gaur egun independentzian pentsatzea eta lortzea, jada ez luke fikzioa izan behar. Beharra da. Kataluniak duen beharra, eta Euskal Herriak ere bai. ■



Juan Mari Arregi



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

batetik, euskara erabiltzeko baldintzak egokiak direnean eguneroko jardunean euskara erabiltzen dela aitortzen zen. Hortxe dago hutsune nagusia. Orain arte garatu den hizkuntza-politika desegokiak gizarte espazioak euskalduntzeari muzin egin, eta nagusiki pertsonak euskalduntzearen alde egin du (egin duenean), horrela gizarte espazioak euskaldunduko liratekeelakoan. Gaur egun, familia transmisioak, eskolak eta euskaltegiek euskalduntzen dute, eta gizarte espazioek, aldiz, erdaldundu. Horri gehitu behar dizkiogu, oraindik ere, erabili nahi izateak sortzen dituen mota guztietako endredoak, hiltunari eragiten dizkieten kalte emozionalek hizkuntzaren hautuan zuzenean eragiten baitute”. ■

LUARKITEKTOAK
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitzaren proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Independentisten aukera berriak

BERLINGO, harresiaren erorketa, SESBen desagerpena, estatu berrien sorrera... Gogoratzen? Krisi guztietan dira aukerak eta egungoarekin ere Europako hainbat herrik izan dezake berea. Aukera horiek sustatu nahi dituzte joan den astean Sardinian sortutako Europako alderdi independentisten elkarrizketarako sare berriak.

2014a hurbildu ahala Eskoziako erreferendumak haize emango die Europako mugimendu independentistei. Azken urteetan, adibidez, independentziaren ideia bereziki indartu da Katalunian, eta horren ispilu izan zen iragan martxoan Kataluniako Biltzar Nazionala eratu izana.

ko kideek publikoki aitortu dute manifestazio arrakastatsua desio dutela, horrek hilaren 20an Masen posizioa indartuko duelako Mariano Rajoyrekin izango duen bileran.

Bai, baina ez, hori da CiUren etengabeko posizioa independentiziariekiko eta orain arte behintzat baliagarria izan zaio. Horren adibide da Kataluniako Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan 62 eserleku ateratu zituela (135etik). Baina ez da zalantzarik oso argi ibili beharko duela herritar askoren independentzia nahiarekin, bere oinarriaren zati handi batekin besteak beste. Masek berak ere bere botoarekin sostengatu zituen 2009ko erreferendumak.

honetako arazo nagusiak. Solidari-tatek eta CUPEk, adibidez, errotik baztertzen dute Espainiarekin edozelako itun fiskal egitea, eta ERCk, ICV eta CiUk argi ikusten dute itun fiskala behar dela (EAEko kontzertuaren gisakoa). Datorren asteartean ikusiko dira manifestazioaren arrakasta maila eta bere ondorioak, baina ez da zalantzarik independentismoak gora darraiela Katalunian. Eta bitxienetakoa –seguruenik hemen horrela ez delako–, independentismoaren indarra, alderdietan baino, herri mugimenduetan dagoela, oraingoz behintzat.

ETA EUSKAL

INDEPENDENTISMOA?

Ez da zalantzarik hainbat faktorek berau indartu egin dutela, nagusiki egoera politiko berriak. Bate-tik, independentzia argi eta garbi aldarrikatzen duten Bilduk eta Amaiurrek emaitza ikusgarriak lortu dituzte azken hauteskundeetan, eta bestetik, Espainiaren egoera larria medio, harengandik urruntzeko ahotsak gero eta ozenagoak eta zabalagoak dira, baita jeltzaleen artean ere.

Independentismoa indartsu da Euskal Herrian, baina ez du garbi independentziazarantz nola egin. Batetik Ipar Euskal Herrian eta, batez ere, Nafarroan, abertzaletasunak gehiengorik ez duelako, eta bestetik, eta nagusiki, EH Bildu eta EAJren artean bide hori egiten hasteko adostasunik ez dagoelako. Krisiak eta ETaren ondorengo aroak aukera berriak jarriko dituzte mahai gainean eta mugimendu abertzaleak hausnarketa sakona egin beharko du independentiziarako estra-tegiak birpentsatu, adostu eta indarrean jartzeko. ■



Eta bitxienetakoa –seguruenik hemen horrela ez delako–, Kataluniako independentismoaren indarra, alderdietan baino, herri mugimenduan dagoela

Espainiako Konstituzio Auzite-giak 2010ean katalanek onartutako erreferenduma atzera bota izanak hegoak eman zizkion mugimendu independentistari. Egungo krisiak, Kataluniaren erreskateak eta itun fiskalaren inguruko ika-mikek ere berau sendo elikatzen jarraitzen dute. Katalanen gehiengo oso handiak amorrutuz bizi ditu Madrilgo inposaketak, beste kontua da horietako zenbatak bereganatzen duen independentziaren ideia, baina gero eta gehiagok.


Datorren Diadaren egunean, hilaren 11n, izango da neurgailue-tako bat: inoizko independentzia-ren aldeko manifestaziorik handie-na egin nahi du Kataluniako Biltzar Nazionalak. Artur Masek azkenean manifestazioan ez izatea erabaki zuen, baina bere gobernu-

Ordezkaritza instituzionala lortzea eta banaketa dira Katalu-niako independentismoaren arazo nagusienak. Independen-tzia argi eta garbi bultzatzen duten alderdiek, adibidez, 14 boto besterik ez zituzten lortu 2010eko hauteskunde autonomi-koetan. Eta banaketak ere ez dira atzo gauekoak. ERC eta Solidari-tat-en arteko ika-mikak eta harre-man txarrak ohikoak dira Lege-biltzarrean, eta azken udal hauteskundeetan gehien hazi den mugimendu independentistak –CUP ezkertiarra (20 zinegotzi-tik 121era)–, ez du Biltzarrak dei-tutako manifestazioa sostengatu-ko.

Egungo autonomiarekiko jokaera eta, bereziki, itun fiskalare-kiko desadostasunak dira une

ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

2



EUREKA! zientzia museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Artez euskara zerbitzua

9 harpidedunentzat
ikasle agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



888 txiste Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2333. Argia)

IBERNALO LANDETxea

- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Josebe Sagarazu Antsizar (Hondarribia)
- Pozokoetxeko Liburutegi Publikoa (Basauri)
- Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)
- Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)

GARTXOT liburua

- Uxune Iriondo Urbitzazu (Getxo)
- Juan Anjel Iturzaeta Martija (Zarautz)

INGURU ABENTURA Puenting II. maila

- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)
- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)
- Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu)

JORGE ABADIAS A tablero CDa

- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Patxi Arostegi Jimeno (Bilbo)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

